



Loradi

Paulin Solozabal Solozabal



MUNGIA EDER

Sinismena da bizitz argia
erbesteko lurraldetan
giza semeak bear dabena
salbamenaren bidetan.

EGILEA: Paulin Solozabal Solozabal

URTEA: Bilbao 2006

IRARKOLA: Flash Composición, S.L.

LEGE GORDAILLUA: BI-1129-06

AURKIBIDEA

Zubizarreta'tar Balendin Gongotzaiña	9
Atea - Txoria	10
Ura - Arenaza ertilari	11
Euskalduna	12
Baratza	13
Uraldia	14
Gizona	15
Bizia	16
Mendia	17
Ikastola	18
Eleiza	19
Iturria	20
Arizti	21
Burua	22
Biotza	23
Izadi	24
Erria	25
Izkuntza	26
Argia	27
Goizian	28
Zuzentasuna	29
Edurra	30
Egia	31
Lan	32
Baserria	33
Ibaia	34
Lorea	35
Etxea	36
Adizkide	37
Mutil	38
Jolasa	39
Kurutza	40
Aita	41
Ama	42
Arrats-bera	43
Abeslaria	44

Poza	45
Illun-Nabarra	46
Odola	47
Arizmendiarieta	49
Aldatz gora	50
Lili zuriak	51
Erlea	52
Euria	53
Ogia	54
Otoia	55
Eriotza	56
Geroa	57
Edurra	58
Adimena	59
Arin-aringa	60
Ortzian	61
Goretsazue jauna	62
Sagarra	63
Itxaropena	64
Ardoa	65
Agur	66
Gerora begira	67
Urrundik ikusten dot	68
Errukia	69
Itza	70
Tontorrik tontor	71
Tximist	72
Sinismena	73
Agindua — Alkar maitatu	74
Eguerdia	75
Dizdizera ederra	76
Etxezain	77
Jatorra	78
Sendia	79
Salbatzaillea	80
Zorionekoak	81
Gogoa	82
Belarria	83
Oroigarriak	84
Alaitasuna	85

Edertasuna	86
Baratza	87
Lauaxeta	88
Goiko mendia	89
Auzokide	90
Erbera	91
Ergoien	92
Zelaian gora	93
Nere ametsa	94
Arizmendiarieta	96
Zuzendaria	97
Euskera	98
Otoia	99
Goruetan	100
Laiñoa	101
Leiopean	102
Bizia eder da	103
Zentzuna	104
Atsedena	105
Ederren ederrez	106
Zurtasuna	107
Ikaslea	108
Zelairik zelai	109
Gora ta gora	110
Alkar-izketa	111
Entzulea	112
Jaiki jaiki	113
Eguzkia beratzen	114
Lagun-arteon	115
Maxa	116
Trumoaia	117
Urtegi	118
Jaia	119
Bidea	120
Siñismena	121
Jaunaren deia	122
Bide zuzena	123
Errukia	125
Argia	126
Serbitzaillea	127

Apala	128
Euskalduna	129
Etxebarria Bingen	130
Izardi	131
Aldatz gora	132
Ara nun diran	133
Itxasaldea	134
Ikastola	135
Etxaburu	136
Urriñera	137
Kereseta	138
Mendiguren	139
Mungia	140
Ibaialde	141
Aritz adarrean	142
Gari meta	143
Solozabal	144
Eguzkiaurre	145
Zubia	146
Erlea	147
Ogia	148
Maitasuna	149
Sasia	150
Oiu egingo	151
Zintzoa	152
Salbamena	153
Aldarea	154
Josu	155
Eguna	156
Eskerrak jaunari	157
Jaunari deiez	158
Euria eta edurra	159
Tximistondo	160
Zidarrezko ezteguak	161
Abestia	162
Etxea - erre	163
Giza - arloak	164
Jesu Cadanova jaunari	172
Sagarna'tar Joseba	173
Errudun - Argia	175

Gernika	176
Gernika	178
Gernika	180
Adorez	185
Irujo	187
Irujo	189
Mungia	191
Onaindia'tar alberto	194
Lauaxeta	198
Askatasun - Mendi eta Muño	200
Agirre'tar Joseba Andoni	204
Lizardi	206
Euskeraintzakoa	208
Barandiaran'dar Jose Migel	211
Izpiak	213
Lur	214
Lugina	215
Euskal gurasoei	216
Igandea	217
Eskeini	218
Josu - Edurra	219
Ontasuna	220
Euskaldun gurasoei	221



ZUBIZARRETA'TAR AITA BALENTIN

Etxebarriko euzko baserri
Arnorriagan jaioa
Kuban izan zan Gongotzain jauna
Jesusen mezularia.

ZUBIZARRETA'TAR BALENDIN GONGOTZAIÑA

Nire oroimeneko
gogo artian dodan
sorterri maitia,
aztu eziña zaitut
gogoz eta biotzez
bizitz iturria.

Izkuntz eder bat dozu
ezilkortzen zaituna
arkaitzen gaiñean;
eguzkizko dirudie
zure arbaso itzak
mendi magalean.

Izar antzera dabiltz
baserritar semeak
pozez jolasturik;
eder da bai sendia
izkuntz garbiagaz
barnea argiturik.

Mendi bizkar maitea
solo eta zelai orlegiz
mamindurik dago;
Arnoriaga tinko
dager basetxe zuria
amets eder giro.

Ardiak zelai zear
pozaren kilimaz "bee"
kantari doazi;
ta Balendin mutilla
artzaiaren lanetan
gogoz aurrelari.

Gazterik doa ikasten
artzaigoaren lana
euskaldun mendian;
ardi zuri ta baltzak
zuzentzen ikasi dau
zelai orlegian.

ATEA

*Baserri aintzagarri
millatan eder zara
zorionekoa,
eguzki argipean,
gora gora, daukazu
brontzezko atea.*

*Aterik sendoena
jarri dautzu jaubeak
etxeko zaindari,
lapurrak bildur dira
zugana urreratzen
diru ameslari.*

*Baserri miragarri,
zureak dira goiak
indarrez beterik,
urkidi ta sagasti,
zelairik ederrenak,
indarrez ondurik.*

TXORIA

*Txoririk ederrena,
gora goraka, doa
aize gozoetan,
lurra astun dalarik,
aizea dago gozo
urrezko dantzetan.*

*Kantu kantari dabil
egunsenti goizian
pozez gozarturik,
eguzkia argiago
ta txoria pozago
egoak zabalik.*

*Oi, goiz zoragarria,
dizdizera ederrez
amesgarri zara,
zure bizia nai dot
egazkari ikusi
zerutik lurrera.*

URA

*Mendi goi goitik datoz,
saltari, ur gozoak
bide ezbarदिñetatik
mendi goiak alaituz
ta espalda orleiak
onduz, biotzetik.*

*Mendi barrenetan
alkartu dira urak
ibai pozgarrian,
txori ta abereak
bertaraiño doazi
ametsen artian.*

*Ai, aurrerago dago
uren batzar nausia
soiñeko urdiñez,
arrain ezbarदिñekaz
aberastuta dago
oparotasunez.*

ARENAZA ERTILARI

*Sukaldari argia
zintzo, dabil lanean
gogorik onenaz,
burua deika dauka
lan guztiak onduten
edertasunagaz.*

*Jakituria berez,
deika dauka lanian
artista gisara,
gogorik onenagaz
janari bikaiñenak
aurkesturik maira.*

*Nundik dator aizea,
bultzaka argi-eder
udalen goizian,
oi, Bermeo aundiak
itxaso urdiñagaz
bultz dagi lanian.*

EUSKALDUNA

Euzko seme jatorra
lorerik ederrena
zara lur aurrian,
mendi eta zelaiak
zuri begira dagoz
bizitz egokian.

Aritz zoragarriak
orlegiz babesturik
dagoz mendietan,
bizitza mamintsua
damotse lur sendoak
zugatz adarretan.

Iturri izpitsuak,
dizdizera ederrez,
ospetsuki dagoz,
euskel mendi bikaiñak,
bizi, aurkitzen dira
onduta ur gozoz.

Euzko gizon iaioa
sega zorrotzaz doa
goizian goizetik,
ide gorrizkak dagoz,
zutunik, itxaroten
biotz barrenetik.

Mendiak maite ditu
baserritar jatorrak
gogo gurenagaz,
ide eta zugatzak
bere-bereak ditu
biotz guztiagaz.

Jakituriaz dabil
egunsenti goizian
orbelak batuten,
txori abeslariak,
aurrez, kantari daukaz
biotzak poztuten.

BARATZA

*Gauzaz beterik dago
Perutxoren baratza,
egiz, pozgarria,
urrezko eguzkia,
dizdizera ederrez,
dau lagun maitia.*

*Tomate gorri gorri,
ondo, dotore dator
eguzki gorritan,
lora zuri zuriak
sortzen dabe azia
on-etorrietan.*

*Zeru urdiñak agurka
goizian goiztik datoz
argi zabalagaz,
baratza maitalea,
betik, gora begira
eskerrik onenaz.*

*Baina gozo gozoak
eztitan dagoz goizez
eguzki sorreran,
ederragoak dira,
gatzagaz gozaturik,
maian egokeran.*

*Piperraren lorea,
zuri-bitzetan, dator
orlegi artean,
usain gozozko lore
janari biurtzen da
urrezko udean.*

*Kalabas ta kipula
baratzaren erdian
osasuntsu dagoz,
lur maitaleak dira
arrokeria barik
edertasun giroz.*

URALDIA

*Aurraldian daukagu
ikusgarri bikaiña
beren egoetan,
luzez eta zabalez
neurgabe dirudi
edertasunetan.*

*Margo ederrik ba-da
sortu diran guztietan,
bat ur aundietan da,
begiak artu-alan
dizdizera ederra
itxasoan ager da.*

*Apainduriz onduta
dagersku itxasoa
beraren ertzetan,
mendi zoragarriak
pozez, begira daukaz
egal guztietan.*

*Oi, erri maitaleak,
gogoz begira daukaz
urdintasunera,
itxasoak daneri,
agur biotzekoa,
bialtzen lurrera.*

*Ta zu, Bermeo maite,
itxostar seme zara
bizitz ederrean,
zure arnas bizia
urdin ta ederra da
uraren aurrean.*

*Bermeo zoragarri
arrain kabia zara
itxas urdiñean,
seme argiak dozuz
lan bikaiñak egiñez
itxas ederrean.*

GIZONA

*Lurrean agiri dan
izaki ederrena
adimenduna da,
buru ta biotzez
osoturik dagoan
lore bikaiñena.*

*Giza jakituria
zerutar argia da
dizdira ederrez,
gogoz, egia dakar
zeru goitik lurrera
lagunen omenez.*

*Burua zintzo dabil
egiaren bidetan
itza zaindu nairik,
buruak zaintzen ditu
mendi ta itxasoak
biak alkarturik.*

*Buru lagun zintzoa
biotza dau gizonak
bizitz eder öntan,
Jaungoiko Jaun Altsuak,
bikainki, sortu eban
beren iruditan.*

*Urrezko da biotza
maitasun goriagaz
gizarte maitian,
bizitz arrigarria
sortuten dabe biak
alkartasunian.*

*Egi ta maitasuna
gora goraka doaz
lagunen bidean,
euzko gizon jatorra,
ori dok zoriona
bizitz ederrean.*

BIZIA

Zorioneko itza,
bizitz zoragarria
zeru ta lurretan,
zabal-zabalik doa
urietan zearka
bizia loretan.

Zelaian zear dabil
urre-gorritz dantzetan
eguzki gorria,
ta larrosa gorriak
gogo onez damotso
ongi-etorria.

Asa, porru ta baina
gogo onenaz dagoz
baratz zabalian,
bidean zear doa
euzko ertilaria
bizitza zorian.

Gizon ertilariak,
gogoko, dau bizia
euzkoen artean,
margo zoragarriak
jatorkoz begitara
itzaltasunean.

Soiñu eta kantuak
euskaldunenak dira
artisten artian,
bizitz maitagarria
abestiz gozaturik
jakitun bidian.

Bizitz zoragarria,
egiz gozartu nai dau
langille zintzoak,
bera dau egia
bizia gozartzeko
zabalduz begiak.

MENDIA

*Mendi zoragarria,
gogoz, ikusten zaitut
edertasunian,
zure kideko lurrik
ez da errez aurkitzen
mundu zabalian.*

*Maxa dozu izena
eguzkiz argiturik
sabel ederrean,
nora nai, begiratu,
orlegiz bikain zara
zure bizitzean.*

*Zugadi indartsuak
zure baitan daukazuz
orlei orlegiak,
gogoz, goratzen zaitu
eskarrik onenian
arizti nausiak.*

*Probintzi eder biren
aize gozotan zagoz
izkuntz ederragaz,
lepotik Gipuzkoa
arpegitik Bizkaia
duintasunagaz.*

*Ederrez eder zara
artista guztientzat,
txit zoragarria,
zugar jarri dan oiña
urrezko gelditu da,
lur maitegarria.*

*Euskaldunen odola
gudan artu zenduan,
txit minberaturik,
Maxa eta erria
odolez bat ein dira
itzez indarturik.*

IKASTOLA

*Euskaldun ikastola
zure argiaz dabil
euzkotar erria,
lurra berez illun da,
maisuak bear ditu
argituz bidea.*

*Irakasle jatorrak
sortu ziran Euzkadin
erri omenian,
izenik ederrena
berarentzat sorturik
euskaldun lurrian.*

*Jakituria dator
etxe eder ortatik
erri zurrarentzat,
maisua eta ikasle
gogo onenaz dabiltz
euzko bizientzat.*

*Ikastola kutuna,
emon da zabal zazu
Euzkadin argia,
izar argi biurtu
euzko seme leiala
ta bere erria.*

*Gizadi maite onek
izen on bat bear dau
mundu zabalean,
egiaren argia
lur guztian zabalduz
bizitz omenean.*

*Euzko jakituria,
beti izan da eder
gizonen artian,
gizontasun ta itza
bijoaz indartuten
euskaldun errian.*

ELEIZA

Kristauen batzar leku
atsegingarria zara
Eleiza donea,
munduko egi danak
bedeinkatu dozuz
zerutar argira.

Jainkotiar Eleiza
era berean zara
lurreko argia,
munduko zuzendari
jarri zinduzan Jaunak
onguraz betia.

Siñismendun gizonak
danak osoan dabiltz
zure inguruan,
argia ta egia
jadetsi nai ditu
zure aburuan.

Egiteko aundia
zuregan daroazu
zentzun onenian,
lurra zeruaz bat ein
jakituri onenaz
alkartasunian.

Munduaren argia
zuregan itzi eban
Jesus maitaleak,
Eleiz zoragarriak
argitu bear ditu
lurraren magalak.

Egiaren ondoren
zerutar poz ederra
daukazu egitan,
betirako bizia
eskeinduten zabilatzaz
zorion argitan.

ITURRIA

Mendi zabal guztia
eder girotan dago
biotza zabalik,
aurrera adi dago
gizadira begira
onguraz beterik.

Arkaitzak dagoz ernai
zeru-lurretara adi
osasan giroan,
ederrez deika dagoz
gizon jakintsuari
osasan onean.

Gora goraka dagoz
edertasun guztiak
zeruaren aurrez,
edergarri onena
zuria berbera da
almen ederrenez.

Arkaitz zuri zuriak
guztiz bikaiñak dira
tontorren artean,
zu ederra zalarik
ni askoz ederrago
gizonen aurrean.

Kantin zuriaz dator
mutil gaztea goizez,
uraren soiñura,
aizpeko iturria,
beti, opaka dago
errira begira.

Aitzarte ta gaztea
biak, bat, egin dira
pozaz zoraturik,
egiz zara ederra
dirautso iturriak
mutilla pozturik.

ARIZTI

*Euzko mendi alaiak
eder dira goizian
eguzki sorreran,
maitez alkartzen dira
zorionez beterik
egun agerkeran.*

*Mendia, gora adi
irriparrez dirudi
beren izatean,
orlegiz dago, dizdiz,
izar danei begira
edertasunean.*

*Argia ta mendia
alkar agurka dabiltz
alaitasunian,
lurra eder dalarik,
zerua ederrago
argitasunian.*

*Edertasun artean
euskal aritz orleia,
dizdiz agiri da,
zugadi aintzatsua
gora-goraka dago
pozak eraginda.*

*Nora-nai begiratu
ta arizti orlegia
dirdaitsua dago,
egiz zoragarria,
mendia eskeinduten
bizia oparo.*

*Dizdizera ederrez
mendia apain dago,
orlegiz jantzirik,
bei zuri ta gorriak,
gogoz, dabiltz tiraka
bedar orlegitik.*

BURUA

Bizitzako gidari
jarri zinduzan Jaunak
buru zoragarri,
geroztik, beti zabiltz
lan onenak egiten
bizien gurgarri.

Eder dira egunak
urteak ederrago
bizien aurrean,
jakituria dabil
beren almen guztiaz
zorian bidean.

Lur dana adi dago
asmorik onenagaz
buruko argira,
argia bultza nai dau
gidari leial orrek
gizonen bizira.

Munduko gizadiak
beraren ezbidetan,
larri ibilirik,
argibidea nai dau
bizitza alorretan
oiñak zuzendurik.

Ta zu, buru argia,
esna zaitetz goizetik
eguzkiz batera,
arduraz bizi zaitetz
bideak arteztuten
zuzentasunera.

Egiteko onena
buru eta biotzez
zuzenbidea da,
egiaz ondurik
eriotzara doa
giza ondamena.

BIOTZA

*Biotz bedeinkatua,
maitasunak onduta,
zagoz gizonetan,
zure indarra bear,
ezin bestalan bizi
bakezko bidetan.*

*Bakar ta gizartea
erri bateko dira
izadi aurrian,
mendiaren ederra
zoragarria da-ta
orleitasunian.*

*Biotzaren gogoa
berez da ain ederra
urrezko jantzirik,
anaitasuna nai dau
bizitz labur onetan
egiaz ondurik.*

*Gora begira dago
gizon argi jaubea
biotzaz ondurik,
biok batera dabiltz
gizadia zainduten
biotz biotzetik.*

*Urre guztiak baiño
ederragoa zara
gizonen barnean,
gozoa dariozu
izate barrenetik
ixiltasunean.*

*Biotz maitegarria,
zu barik ezin bizi
bakardade ontan
bedeinkatu egizuz
bizitzako orduak
estutasunetan.*

IZADI

*Uda erdi-erdian
zerura adi nengoan
arrats beranduan,
eguzkia agurka
izadi guztiari
itz zoriontsuan.*

*Goi urdin ertitsua
lurrera adi dago
gau zoragarrian,
ederrena bera da
urre bitxiz beterik
zabaltasunian.*

*Gitxitzen zan gitxitzen
gozotasun onenaz
eguzki argia,
maitasunez dirautso
arrats-bera eztiak,
agur izadia.*

*Gizona adi dago
lur ontatik zerura
ederrez pozturik,
lurra eder dalarik...
zerua, zer diñozu
urrezko jantzirik...?*

*Eguzkia ba-doa
tontor gaiñetik zear
ibilbide eztian,
eguneko izarra
egaz doa itxasoz
dirdai urdiñian.*

*Urdiña ta urrea
maitasun gozoetan
dizdizka dabilnaz,
biziaren korroia
goi ortan aurkitzen da
zoriontasunaz.*

ERRIA

*Izen aundia lurrez
gizonaren ustean
gogoz indarturik,
arantza barik dago
anai danen artean
biotzez ondurik.*

*Erriko batasunak
sortuten dau bakea
bizitza maitian,
gizadi erritarrak
alkartasuna nai dau
zorion batian.*

*Ta zuk, odol gorria,
lagundu biziari
bake biziagaz,
zure ontasunetik
sortu bear dau itza
pozik ederrenaz.*

*Buru eta biotza
alkartu beitez gogoz
gizontasunean,
gizadia zurtu daiten
zuzenbide garaian,
bakez bizitzean.*

*Laguntza sortu bedi
egun-senti goizian
urrezko jantzirik,
argiz eta egiaz
bizitzaren ederra,
ondo zuzendurik.*

*Ondoren dator ona
bizitz zoragarriaz
sorturik erria,
bake ta maitasunak
onduko dabe lurrez
gizonen bizia.*

IZKUNTZA

Giza agiria da
izkuntz zoragarria
bizitz ederrian,
itzak argituten dau
gizonaren nortasuna,
lurraren gaiñian.

Usain gozozko lore
bitxi bikaiñena da
izkuntza zolia,
itzak alkartzen ditu
borondate onenaz
gizon ta erria.

Eskola ta mendia
biak ederrak dira
giza zurtasunez,
itzak argia bear
aize garbiz ondurik
goi zuzentasunez.

Ba-da izkuntz eder bat
jakituriz ondua
gizonen artian,
ederrik bear ba-da,
euzko lurreean dago
biotzen erdian.

Eskola ta lantegi
zelaiekaz batera
da zure iturri,
jakituri ederra
daroazu zuregan
izkuntz maitegarri.

Euzko gizontasunak,
itzez ta egitez,
sortu dau Euskera,
eder ta sustraitsu da,
jakituriz ondua
euzkoen izkera.

ARGIA

Argiaren ederra
mendi ta zelaietan,
berez, agertzen da,
argiak indartzen dau
baratzean dagoan
lore-eder zuria.

Mutil gazte taldea,
arin aringa, doa
gurari onenaz,
eguzkiak lagunduz,
oiñak bizkortzen jakez
biotzak poztuaz.

Gariak, gora gora,
asten dira argiaz
solo zabalean,
ta txoriak, egaz doaz
janari gozo billa
garitz ederrian.

Aittitte maluteko
ate aurrean dago
bere baserrian,
eguna eder dakus
ta biotza pozago
argitasunian.

Leio ondoan dago
killero kantaria
argiaz pozturik,
abesti gozoenak,
gogoz abesten ditu
argiz indarturik.

Jakintsua ba-dator
indar barriak artzen
argitasunera,
idazti ederrena
argiagaz ondurik
egi esanera.

GOIZIAN

*Argia bizi dator
egun-senti eztiatz
goiz-aro barrian,
isilla eta poza
nagusi biur dira
izadi aurrian.*

*Lurra, gora goraka,
adi dago zerura
izarren aurrian,
ortzia eta lurra
besarkatu dira
maitasun onian.*

*Itxaso urdiñetik
dizdizera bikaiñez
dator eguzkia,
bakezko atsedena
asmetan dau gogoak
ederrez betia.*

*Goizeko izar ona
urrez jantzirik dator
mendi tontorretik,
solo eta zelaiak
biotz zabalik dagoz
eguzki sortzetik.*

*Ortzia urdin urdin,
asebeterik dago
zoriontasunez,
izar gorriak dizdiz,
adi dagoz lurrera
ederraren ederrez.*

*Aurreko lur maiteak
zabaldauz erraiak
argitasunera,
arnari onak datoz
argiak lagundurik
lurraren gaiñera.*

ZUZENTASUNA

*Egiz, itz ederra da
maitasunez beterik
gizonen artean,
argia ta egia
daroaz berarengan
bizitz ederrean.*

*Giza bizitz maitea,
larri izango litzake
gogorkeriagaz,
guzurrez zapalduta
gizona ezin bizi
ain min aundiagaz.*

*Lurreko bizitz ontan
Adiskidetasuna
lora jatorra da,
egiz alkartzen dira
gizarteko biotzak
zuzentasunera.*

*Lorerik ederrena
giza seme artean
egi berbera da,
argitasun garbiak
alkartzeitu biotzak
onak eraginda.*

*Gizonen bizitzea
ez da sortua izan
gogorkerirako,
biziaren Jaubeak
andra-gizon sortu dauz
maitasunerako.*

*Egiaren bidetik
alkartasuna dator
zuzentasunagaz,
buru eta biotzak
onera adi dagoz
egizko itzagaz.*

EDURRA

Ortzia illun dago
neguaren erdian
laiñoz estaldurik,
trumaoia dardar dabil
ikara gogorretan
erdi zoraturik.

Gero ta illunago
egin da zeru goia
dana bildurgarri,
neguko txori baltzak,
negarrez iges doaz
arin ta arrigarri.

Trumoi zarat nausiak
zabaldau dauz ateak
laiño baltz artean,
edurra zarra zarra,
goitik berantza dator
beren oiturean.

Mendirik nausienak
zuritu dira lenen,
koro ederragaz,
egitan da ederra
lenengo jaustaldea
bere zuriagaz.

Ondoren, gogoz datoz
zeru goiko laiñoak
edur biurturik,
laiño baltza zerutik,
zuri zuri, jausten da
mirari eginik.

Izadi ur zaleak,
egoak zabaldurik,
artzen dau lur ona,
ta lur errai guztiak
atsegin gozoz dagoz
ertzetik ertzera.

EGIA

Itz egokia zara
bizitza ontarako
gizonak onduta,
gizonaren bizitza
larria da lurrian
guzurrak bestuta.

Egiak goratu dau
Euskalerra maitea
lurralde guztian,
euzkotar zentzunduna,
berez da egizale
maitasun bidian.

Usain gozozko lore
bardin bagea zara
baratz orlegian,
giza bizitz ederrak
zure oiu gozoa
bear dau lurrian.

Egiaren altsoan
dabil gizon zuzena
pozak babesturik,
egiak indartzen dau
gizonaren gogoa
almenez goiturik.

Egia ta biotza
anai kutunak dira
bizitz ederrean,
egiak goratzen dauz
giza oinkada danak
bizien lurrean.

Euskaldun egizale,
edozein lurraldetan,
ondo artua da,
egizale izan da
euskalduna Amerikan
onaren erara.

LAN

Lanerako jaio zan
gizonaren semea
lurralde onetan,
deiera egizkoa
eukan giza semeak
lanaren bidetan.

Lanak edertuten dau
bere duintasunez
mendi goi aldean,
lana ta lur indarra,
gogoz alkartu ziran
bizitz ederrean.

Itxas urdin garbia
gizonei deika dago
arrain eder bidez,
janaria opaka
eskeinduz gizonari
lan onaren orde.

Biotzez zabala da
itxas urdin maitia
beren ondasunez,
gizonaren gosea,
beti, urrindu nairik
biotz maitasunez.

Arrainik gozoenak
dauzkaz bere altsuan
on egin gurarik,
bizia eskeintzen dau
gogorik onenagaz
itxas zabaletik.

Itxas urdin biribil,
zabaldu biotz ori
gizonen aurrean,
emon gizadiari
zure arrain gozoak
maitasun onean.

BASERRIA

*Euzko baserri maite
aintzaz beterik zagoz
zelai orlegian,
bedarrik gozoenak,
beti, opaka zagoz
gizonen aurrian.*

*Ta zu, baserri maite,
eder-miñetan zagoz
zelaien erdian,
zuria ta orleia
biak bat egin dira
edertasunian.*

*Sega bardin bagea
zugana doa goizez
eguzki argitan,
bedarrik gozoenak
eskeinduten zabiltzaz,
oparo, goizetan.*

*Gora goraka dagoz
izaki bikaiñenak
ederrez ondurik,
baratz maitegarriak
loraz opaka dagoz
uste onez beterik.*

*Eguzki ta zelaia
bat egin dira goizez
urretxiñoletan,
bedar orlei gozoak,
gora goraka datoz
usain gozoetan.*

*Baserri ongillea
danen erdian dago
itxaropenetan,
odeiak ura dakar,
eguzkiak argia
aro ederretan.*

IBAIA

*Mendi goian egoan
atxarte nagusia,
indartsu sorturik,
goitik bera begira
zapaltzaille zirudian
bildurrik bagarik.*

*Atxartean egozan
iturri indartsuak
alkarren pozetan,
danak uraren urez
atxarteak indartzen
sustrai sendoetan.*

*Berantza etorkeran
iturri nagusiak
bat egiten doaz,
mendiaren barnean
ur danak batu dira
gogorik onenaz.*

*Arkaitzak eguzkitan,
adore onenian,
urtegira adi,
zelaiak zear doaz
ur danak bat eginda
maitasun irudi.*

*Ibai zoragarria
erririk erri doa
lagunen pozagaz,
bizia zabaltzen dau
erritarren artean
mesede egiñaz.*

*Eguzkia begira,
goiz eta arratsalde
zeru urdiñetik,
arkaitzetako urak
itxaso biur dira
eskarrez beterik.*

LOREA

Usain gozozko lore
etxe alde guztian
maitegarria da,
lirio zuri-zuri,
larrosa gorri-gorri,
guztiz eder dira.

Baratza orlegia
edertasunez dago
guztiz apaindua,
lora zuri gorriak,
dizdizera ederrez,
edertzen ortua.

Baratza txanbeliña
eguzkiaren aurrez,
bizi-bizi dago,
lora zuri gorriak
bikaintasun ederrez
goitik ta beraiño.

Egun-senti ederrez
eguzkia dirdiraz
aurkitzen da goiezez,
poza dabil zelaian
orrietan dardari
goi argitasunez.

Erramu dotorea,
zeru goitik zatoz
gizonen pozgarri,
zure margo liraiñez
apaindu izadia
lurreen miragarri.

Lora zuri bikaiña,
goizian goizetik,
erdu aldarara,
usain ona zabalduz,
gurtu Jaun Egillea
maitasun erara.

ETXEA

*Etxe zoragarria,
izen aundia zara
bizien lurrean,
izaki bikaiñenak
zuregan bizi dira
ordu ederrean.*

*Maitasun abi zara
guraso eta seme,
gogoz alkaturik,
egiteko aundiak,
ortxe osotzen dira,
egiz maitaturik.*

*Alkertasun egia,
lorarik ederrena
jaio da etxean,
semeak ta alabak,
bitzuak dira eder
maitasun bidean.*

*Alkertasun ezitia,
ortxe osotuten da
guraso-semetan,
gurasoak aginduz
danak batera dabiltz
bear arloetan.*

*Danen lan arnariak
agertzen dira goizez,
ederrez ondurik,
eguzkia dirdiraz
zeru goitik onduten
bizitzaz beterik.*

*Ta gabaz, illargia
agurka, urdiñetik
pozaren pozagaz,
ta lanaren indarra
frutuak sendotuten
almen guztiagaz.*

ADIZKIDE

*Adizkide kutuna,
aintzagarria zara
gizonen aurrian,
gizontasun zuzenez
artu dozu arnasa
lurraren gaiñian.*

*Gizonak gizonari
maitasuna zor dautso
bizien artian,
lorerik ederrena
onginai betia da
anaien lurrian.*

*On egiñez lagundu
bizitzako giroan
batak besteari,
negar baltzak urrindu,
poz barriak ekarri
bizitz ederrari.*

*Negar miñak urrindu
eskatzen dau biziak
anaien artean,
anaitasun garbiak
zorion itza dakar
alkartasunean.*

*Mendi-gain orlegiak
ederraren zai dagoz
jana emon nairik,
sendi maitegarrian
goserik ez negarrik
ez dau nai ikusterik.*

*Adizkidetasunak
maitasuna gura dau
erritar danentzat,
artoa ta ogia,
ugari, ikusirik
seme-alabentzat.*

MUTIL

Zoragarrizko mutil,
askar doa zurtuten
bizitzaren aurrez,
urteak gora gora,
ta sasoi edertzen
bizitzaren urrez.

Aita eta ama pozik,
seme-edertasunez
indar barriturik,
aurrera, mutil gazte,
oraindik bide luze,
edertzen eginik.

Ikastaro argiak,
gora goraka datoz
eskola barritik,
jakituria deika
eta burua argi,
zentzunez goiturik.

Ez da sasoi obarik
jakituria artzeko
buru argietan,
egunak egunari
jakituri barriak
sortzen buruetan.

Gizarte arazoak,
beti, deika dabilnaz
jakituriari,
biziak aurrera nai
bizitza ontzeko
etorkizunari.

Mutil gaztea sendo,
gogoz aurrera doa
bide barrietan,
biziaren sustraiak
jakintzaz ederturik
urretxiñoletan.

JOLASA

*Jolasa nai ta bear
indarrak sendotzeko
osasun bidean,
jolasak indartzen dau
gaztearen bizia
gorputz barreanean.*

*Pelota partidua
edertasunez doa
astelen goizian,
gogorik onenagaz
gazte biak dabiltzaz
arte onenian.*

*Mutillaren bizia
egun-senti goizian
barrekari dago,
jolasa nai gorputzak
beren edertasuna,
sasoiz indartzeko.*

*Jendea pozez adi
mutillen jardunari
artista erara,
mutillak ta erria
alkartasunez doaz
goratzen jolasa.*

*Euskaldunen frontoiak
ate-zabalik dagoz
errira begira,
frontoia ta mutilla
gogorik onenagaz
alkartuten dira.*

*Jolasaren ederra,
aurrera, doa ontzen
frontoi ederrean,
erri ta pelotari
biak, bat, egin dira
anaitasunean.*

KURUTZA

*Osasun-billa dabil
giza-seme larria
bizitz orduetan,
gorputz eta arimak
bizia gura dabe
ordu larrietan.*

*Bizia, izan bere,
bikaiñena da
zeru ta lurretan,
bizirako jaio zan
giza-semea lurrez
ordu gozoetan.*

*Gizona aundia da
lurrak zoriontzeko
beren izatean,
aundikiro jaio da,
Aitonak alan nairik
betitasunean.*

*Lurrak ezin poztu
gizonaren bizia
bear dan aiñean,
ain zabala dalarik,
txiki, geratuten da
gizonen aurrean.*

*Kurutza bear dau
gizonaren biziak
salmaben bidean,
Kurutzako odolak
zabal zitun bideak
askatasunean.*

*Jesusen maitasunak,
ondo zabal zituan
zeruko ateak,
gure Jaunari esker
zoriona lortzen dau
lurrean gizonak.*

AITA

*Egiz, izen aundia
bizidunen artian
aintzaz goraturik,
aitaren zereginak
goratzen dau gizona
lurrak onarturik.*

*Maitasuna dario
aitaren biotz onak
semearen aldez,
errukia gura dau
bere kidekoentzat
zoriontasunez.*

*Aita eta bizia
on-giroz batu dira
izaki barrian,
giza seme maitea
aitarenean zagoz
bizitz ederrian.*

*Aita semeak, goizez
lan onean dabiltzaz
biziaren billa,
alkartasun ederra
maitasunez ondurik
langille jatorra.*

*Seme maitegarria,
odoletan bat gara
bizitz ederrian,
burua ta biotza
izan bediz loratsu
alkartasunian.*

*Gogoa eta poza
alkartu beitez lurrez
maitetasunagaz,
pozaz ta onginaiaz
bizi al izateko
gogorik onenaz.*

AMA

*Izen pozgarria da
semearentzat ama
sendi ongarrian,
maitasun aundiena
amaren biotzak dau
alkar bizitzian.*

*Atxurrak eta sua
bere bereak ditu
senditar biziak,
alkarregazko lanak
osotu bear ditu
salbamen bidiak.*

*Berez artu dau amak
maitasunaren garra
sendi ongarrian,
ondo ikus nai ditu
bere bizikideak
maitasun bizian.*

*Ama maitegarriak
alkartzen dau bizia
sendi ederrean,
urrezko biotz ona
amarenean dago
bizitz omenean.*

*Gora etxeko jauna,
bizitz zuzendaria
etxearen onez,
gora, sendi maitia,
gure partekideak
zoriontasunez.*

*Ama Maria Jule,
beti, arduraz dabil
zuzentasunian,
bakea eta poza
nai ditu guztientzat
ontasun bidian.*

ARRATS-BERA

Amesgarria zara
egun argiz betia
arrats orduetan,
zeure zeureak dira
argia ta ederra
ondasun bidetan.

Usain gozozko lore,
jator dago mendian
zerura begira,
zeru goi urdin dana
amets girotan dago
eskerka lurrean.

Orleia, dizdiz, dabil
mendi goi zabalez
ta aldatz dotoretan,
ederra, txit, dario
Maxa zoragarriak
ego zabaletan.

Erleak-erle dabiltz
euri eder ondoren
aidean gozaro,
lorea ta gozoa,
pozez, asmetan dabe
zelaian oparo.

Egun dana eder da
argiaz orbizturik
zelai orleietan,
ametsa dator goitik,
egoak zabalduzik,
pozaren bidetan.

Ta zu, txori maitea,
abesti gozoenaz
zabiltzaz kantari,
Maxa ta mendi guztiak
zoraturik daukazuz,
adi adi, zuri.

ABESLARIA

*Abeslaria dabil goizez,
kantu kantari
baserri maitian,
egiz ederra da-ta
goizaldeko argia
basetxe zurian.*

*Ederra deika dago
argiaren dizdiraz
baratz magalean,
zerua urdin urdin,
ta izarrak agurka
izadi aurrean.*

*Erlea gogoz dabil
zugatz adar puntetan
goizian goizetik,
ikusle asko ditu
begi zorrotzenekaz,
ondo, aditurik.*

*Urretxindorrak dabiltz
eguzki gozotara
pozak zoraturik,
abesti ederrenaz
zoratzten dabe lurra
dardaraz beterik.*

*Gizon abeslariak
eldu dira plazara
sasoi onenian,
jendez bete da lurra
biotzak poztu nairik
abesti aurrian.*

*Abeslari ta erri
danak biurtu dira
urrezko kantari,
ederraren ezitia
gozaro zabaltzen da
zeru goira adi.*

POZA

Pozaren pozez dator
artxoa mendi goitik
zelai zabalera,
goia eder dalarik,
zelaia ederrago
bedar gozotara.

Artaldea zelaian
atsegiñetan dabil
gogorik onenaz,
eguzkiak zerutik
alaituten buruak
dizdira ederraz.

Artalde zaintzaillea
makilla zuriagaz
ardien aurrian,
gizona pozik dago
ardiak ikusirik
atsegin onian.

Bildots barriak datoz
orduak agindurik
eguzki gozotan,
artzaiña gertu dago
bildots zuria artuz
bere besoetan.

Artaldea ba-doa
indar barriak artzen
zelai orlegian,
lorak eta bildotsak
alkarregaz dabiltzaz
giro onenian.

An urriñean dago,
TXURI, ardi jagole,
beraren lanean,
artalde nagusiak
jagole ona dauka
inguru danean.

ILLUN-NABARRA

Argiaren indarra,
geldi geldika, doa
dizdizera galtzen,
indartsu izan dana,
ixil ixilik doa
goi goitik beratzen.

Eguzkia agurka
itxasorantza doa
giro ederretan,
arrainak, gora gora,
agurtuten argia
urretxiñoletan.

Illun-nabarra dator
argiak aginduta
zeru urdiñean,
agur eguzki maite,
itxas urdin aldera
illun-nabarrean.

Izadi orlegia
itxasora begira
mendi gurenetik,
Maxa zoragarriak
azken argi urretan
agur biotzetik.

Erle gorriak datoz
ezti gogoz ondurik
pozaren pozagaz,
gaba eta bakea
igarotera datoz
alkartasunagaz.

Illun-nabarra dator
toki guztietatik
izadi maitera,
ta gizon ongilleak
guztieri damotse
zorion agurra.

ODOLA

Odola gorri-gorri
bizitz emoten dabil
gizarte maitian,
laguntzaille nausia
odol gorria dogu
gizonen bizian.


Anai artean dabil
maitasunaren garra
odola ondurik,
odol gorri-gorriak
maitasuna dario
biotz berrenetik.

Gizon bat odol barik
ezin bizi lurrian
guztiz ondaturik,
odol gorri-gorria
gizonen bizia da
graziaz beterik.

Biotza taupadaka
odol onak darabil
ordu guztietan,
odol gorri garbiak
damotso gizonari
bizia zaiñetan.

Guraso odol piña
ixiltasunez doa
seme zaiñetara,
geldi geldika doa
bizitza indartuten
burutik oiñera.

Gizon bat odol barik
ezin bizi lurrean
lorrotz gozoetan,
odolak dau beragaz
bizitz gozotasuna
gizon-biotzetan.



ARIZMENDIARRIETA

Sortzetik ziñan gizon argia
gogoz egoki landua
erriarentzat eskeini zendun
zure izate osua.

ARIZMENDIARRIETA

*Ixil, artu induan,
dardara batez, pozik,
mendiko aritzak;
aurtxo jaio barria
ta basetxean danak
maitezko itz utsak.*

*Zenbat amets zorakor
izan ete ituan
gaztaro gozoan...?
Euskeraren jakintzaz,
laster, jaubetu intzan
ire nai osoan.*

*Argia sortu barri,
lozorrotan egoan
maindira artean;
arrano egalari
gero, izango zana
gizonen bidean.*

*Amets zoragarria
giza bizitzagaitik
ein eban orduan...
zer min asmatu eban
zorioneko lagun,
izkuntza zeruan...?*

*Gero, ire bizia
guztia urtu eban
langille arloan;
beti, bizia sortzen,
jakituria geituz
lanaren soloan.*

ALDATZ GORA

*Mendigaiñean dago
nere erri kutuna
izarretara adi,
milloiak izar dagoz
urdin zabal guztian
dizdizka dantzari.*

*Gure aiton maitea,
geldi-geldika doa
arnasa soiñuaz,
zorro aundiaz, larri,
gora ta estuago
arnasa larriaz.*

*Nun zagoz gain argia
gizona bildurtzeko
aldapa latzagaz,
ez nagizu estutu
nere biotz onetan
arkaitz gogorrekaz.*

*Oi, amama kutuna,
nora igon nai dozu
aldatz latz ontatik,
zer dago goi-aldean
tontorretik begira
ederrez beterik.*

*Sagar ta madariak
garauz beterik dagoz
adarreen ertzetan,
ta eguzkia adi
guztiak bedeinkatzen
zoramen bizitan.*

*Aldatza ta zoria
biak alkartu dira
askatasunian,
txori abeslariak
kantu kantari dabiltz
zeru-goi aurrian.*

LILI ZURIAK

*Euri ta eguzkia
alkarren lagun dabiltz
baratz orlegian,
gabean euri eder
goizean eguzkia
alkartasunian.*

*Lurreko eder dana
zeruak onduten dau
gogorik onenaz,
euri ta eguzkiak
indartzen dabe lurra
Jaunak aginduaz.*

*Lurrak biak maite dauz
euri ta eguzkia
almen guztiagaz,
esker-miñetan dago
zelai orlei maitea
gogorik onenaz.*

*Egun-sentian datoz
barri onak lurrera
eguzki argitan,
lurra beira dago
eskerrak emonagaz
onaren bidetan.*

*Izadi eder dana,
gora goraka dago
Jaunaren aurrean,
mendi eta zelaiak,
pozez barreka dabiltz
askatasunean.*

*Lili zuriak datoz
lurraren babesetik
zelai orlegira,
usain gozozko lore
eztia dariola
gizonen aurrera.*

ERLEA

*Euri eder ondoren
lurra oparo dago
ezotasunian,
dana orlegi dager
ederraren ederrez
izate onian.*

*Mendiak asetuta
euriaren uragaz
ezin ederrago,
begi urdin zoliak
zelaietara adi
gero ta pozago.*

*Zugadi orlegia
eder-miñetan dago
mendi zabalian,
goitik bera begira
zelaia orleiago
lurren zabalian.*

*Erlauntz amesgarriak
argiaren zain dagoz
goizeko bostetan,
erle gorriak gertu
erriak otseintzeko
ondasun bidetan.*

*Egun-sentiko aizez
usain gozoa dator
zelai orlegitik,
lora guztiak dizdiz,
aizeak astinduta
itxaso aldetik.*

*Erle askar gorriak,
gogoz, dabiltzaz batzen
loretan eztia,
egiñalak eginda,
egopeak beterik
eskertuz argia.*

EURIA

*Zelai, bizkar, mendiak
zerura adi dagoz
goizalde argian,
lorik egin ezinik,
aurrera doa aldia
izadi aurrian.*

*Mendi bizkarrak larri,
oritzen doaz miñez
goizetik gabea,
negarrez dagoz lurrak
samintasun gogorrez
goitik eta bera.*

*Zelaiak legortuta,
ezotasuna galdurik,
larri-larri, dagoz,
etorkizun samiña,
euririk egin ezik
ondamen erioz.*

*Errekaldeko urak
guztiz urritzen doaz
arri koskorpean,
mendi, zelai ta ibai
euri-eske dabiltzaz
samintasunpean.*

*Oi, goiz zoragarria...
itxasoa illundu
ta orroka dago,
urak laiñotu dira
mesede egin nairik
guztiz maitekiro.*

*Tximist eta tromoiak
ura bota-alean
kantari dabiltzaz,
mendi eta zelaiak
esker-miñetan dagoz
gogorik onenaz.*

OGIA

Baserritar gizona
goizian goiztik dabil
bizitza lanetan,
bei txuri eta gorri
buztartuta dabiltzaz
solo ederretan.

Lurra landuten doaz
eguzki urrezkotan
gogorik onenaz,
bizitza ardureak
lana eskatuten dau
gorputz izerdiaz.

Aro ederra dago
eguzki argiagaz
lur dana ondurik,
beiak ondo dabiltzaz
Txomiñen esanera
lurrak urraturik.

Gari-garauak doaz
eguzki printz artean
lur landuetara,
egun talde ondoren
gari barriak datoz
ogi eskeintzera.

Egiz, sasoi onian
ama maitea dabil
opil gozo artean,
ederragorik ezin,
ogi zuriak baiño
maiaren gaiñean.

Etxeko gaztetxoak
ogi zuri aurrean,
pozez bete dira,
urdailla eske, dabil,
ta semea ogi zuriz
agertu da maira.

OTOIA

Zeru-lurren aurrean
otoia itz ederra
gizonen omenez,
otoiak alkartzen dau
zeru-ogia lurragaz
zoriontasunez.

Otoitzik ederrena
Jainkoaren Semeak
irakatsi eban,
zerua eta lurra
lurtarren onerako
alkartu euskuzan.

Lurtar seme garanok
makur daigun biotza
Jesusen otoian,
gauzarik ederrenak
otoi orretan dagoz
kristau omenian.

Jainkoaren agintza
eskatzen dau Jesusek
lur guztiarentzat,
seme-alaba danak,
beti izan daitezen
zeru goiarentzat.

Giza seme-alabak,
biotzez, maite ditu
lurraren gaiñean,
ta eskari eder au
dagiotsu Aitari
izadi-aurrian.

Eguneko ogia
emoiguzu Aita,
obenak parkatuz,
zaindu gaizuz gatxetik
zugaz bizi gaitezen
zerua gozartuz.

ERIoTZA

Egiz, itz indartsuak
bizitz agurtuera
dakarsku etxera,
lurra pozgarri-izanik,
aldez agurtzen gaitu
zorion-erara.

Agur goi mendiari,
bikaiñetan eder dan
tontor maitiari,
zugatzak orlei dagoz
ta gogoz esan bear,
agur kutunari.

Zelai orlei ederrak
bizitz onian dagoz
lorenz ederturik,
ta gaisoaren aurrez
agurka dagoz miñez,
nagarrez urturik.

Arkaitz gogor sendoak
biotz gogor diranak
mendi tontorretan...
agur dirautse miñez,
etxeko patroiyari
ilkor orduetan.

Baratz maitegarria
loraz beterik dago
edertasunian,
ugezaba gaisoa,
samiñez agurtzen dau
egun il-zorian.

Biziaren agurrak
zulatu ditu ormak
biotz guztietan,
zabaldu ate piñak
edertasun onenaz
zeru ederretan.

GEROA

*Emengo lan ondoren
geroa zintzo dator
gurari onetan,
jokabide zuzenak
ondoren pozgarria
dakarre egitan.*

*Pozerako jaio zan
giza- seme jatorra
bizien lurrian,
egite onen bidez
gizona gorantz doa
zuzentasunean.*

*Goian argia dago
bateko millaetan
argitzen bizia,
eguzki bera baiño
askoz ederrago
zeruko grazia.*

*Zeru-goiko lagunak,
egiz, dagoz pozturik
Jainko maitasunaz,
lurreko lan guztiak,
maitasunez on-giroz egiñak,
ondu dauz sariaz.*

*Alkartasuna dago
zeru-goiz zabalian
Aitagaz batian,
betirako zoria
lortu dabe gizonak
Jesusen aurrian.*

*Bizia amai barik
maitasun ederrian
dago indarturik,
betirako atsedean
aurkitzen da zeruan,
pozez indarturik.*

EDURRA

*Edurra mara mara,
laiñoetatik dator
zelai orlegira,
zuria ta orleia
biak batean dagoz
otzaren miñera.*

*Arkaitz gallur guztiak
zoramenetan dagoz
jantzi zuriagaz,
ez da ederragorik
lurraren egaletan
goizeko argiaz.*

*Mendiak bera dator
amets oial zuria
lurrak agurtuaz,
euzko gizon maitia
begiz begira dago
maitasun onenaz.*

*Erbiak estu dabiltz,
nora iges ezean
edurren artean,
gosez eta samiñez,
il-zorian dabiltzaz
edur magalean.*

*Txori abeslariak,
goiz igeska doazi
aiena miñetan,
gora, bera, albora,
nora ezean, larri,
egaz laburretan.*

*An, be-aldean dago
edurrak estalduta
basetxe maitea,
arantz, doaz kurloiak
oiu larrienetan
leio magalera.*

ADIMENA

Jaungoiko Jaun Altsuak
maitasun onenagaz
gizona sorturik,
bere antzez ein eban
gizaki argizkoa
ederrez ondurik.

Munduko lantegiak
gizadira adi dagoz
bizitz onerako,
burua bear dabe
zuzentasun bidean
ona egiteko.

Lurtar izakietan
guztien burua da
gizon argitsua,
izaki bikaiñena
buruz eta biotzez
Jainko irudira.

Adimenak darabil
gizarteko bizia
jakituriagaz,
bizien on guztia
argi onak ontzen dau
zuzentasunagaz.

Mendi ta itxasoak
zuzendu bear ditu
buru argiagaz,
gizonen onerako
sortu zituan Jaunak
maitasun guztiaz.

Ikastetxe nausiak
buru argiz dabiltz
etorkizunean,
bide zuzenak sortuz,
argia zabaldurik
gizonen lurrean.

ARIN-ARINGA

*Arin-aringa doa
buru adimenduna
egiaren billa,
zuzentasuna bear
bizia zainduteko
egi arauera.*

*Arin-aringa doa
baratza ederrera
goizian goizetik,
lurra oparo dago
piper eta madari
dana emon nairik.*

*Arin-aringa doa
mendi aldatzak gora
gizon argitsua
ardiak eta auntzak
mendi goietan dabiltz
bedarrei tiraka.*

*Arin-aringa doa
asnas zabaletan
itxas urdiñera,
arrain nausiak dakarz
itxas maitegarritik
gizonen etxera.*

*Arin-aringa doa
mutilla eskolara
burua argitzen,
jakituri bidea
gizarte onetan
buruak eskatzen.*

*Arin-aringa doa
biotza poz beterik
Maxako gaiñera,
urdiña eder dakus
ta lurra maitekiro
zerura begira.*

ORTZIAN

Tontorrek ta zerua,
eder, eztitan, dagoz
illun nabarrian,
ikusgarri bikaiña
bialtzen dabe biak
omen onenian.

Eguzkia agurka
ba-doa itxasora
atseden artzera,
ura eta argia
biak bat egin dira
gabeko egira.

Gallur zuri zuriak
dizdizera ederrez
eguzki izpitan,
zoramen aundiena
agertzen dabelarik
azken agurretan.

Zerutar goi guztia
izar urrez jantzi da
argizko dardaraz,
oi, zein eder dan goia
urre bitxiz jantzirik
maitetasunagaz.

Zerua urdin urdin,
ederrena opaka
arte onenean,
izar urreak datoz
urdiña apainduten
eder omenean.

Lurra eta zerua
biak alkartu dira
gau ederrenean,
loak artu dau lurra,
izarrak, dizdiz, dagoz
zeru ederrean.

GORETSAZUE JAUNA

Jaunak egindakoak
bedeinkatu Jainkoa
zeru ta lurretan,
Jaunaren Aingeruak
goratu Jaungoikoa
zeru ederretan.

Eguzki ta illargi
bedeinkatu Jainkoa
zeru urdiñean,
Tximistondo ausarta
bedeinkatu Jainkoa
lurraren gaiñean.

Su ta bero nausiak
goratu Jaungoikoa
laba gorietan,
izotz gogor ta jelak
bedeinkatu Jainkoa
errekaldietan.

Argi ta illunpeak
bedeinkatu Jainkoa
mendi tontorretan,
tximist eta odeiak
bedeinkatu Jainkoa
baso magaletan.

Tximistondo nausia
goratu Jaungoikoa
zure lur aundian,
zugatz eta loreak
goratu Jaungoikoa
baratz ederrian.

Iturri pozgarriak
bedeinkatu Jainkoa
zelai orlegian,
Tximistondo maitea
bedeinkatu Jainkoa
bizitz ederrian.

SAGARRA

Landara orlegia,
bizi bizirik dago
zelai zabalian,
gora ta gora doa
sustraiak sakondurik
lurraren barnian.

Udabarria dator
goiz-aro ederrean
argizko jantzirik,
zugatzak, gora gora,
gero ta ederrago
bizia ondurik.

Gora ta ederrago
doa bere itxura
sagasti nausian,
ederretan ederren
nagusituten doa
zabaldi orleian.

Argiaren indarrez
lora zuriak datoz
adarren ertzetan,
usain-gozozko lore
asirik ederrenaz
itxaropenetan.

Sagar landara onak
lagun zintzoak daukaz
beren inguruan,
lur sendoa sustraian,
ta argia goi-aldean
beraren buruan.

Urtebete, bozkantoi,
sagar ale bikaiñak
dagoz adarretan,
ta gogoa begira
sagar gozoenari
zorabioetan.

ITXAROPENA

Izki zoragarria
zeru goi-goitik dator
gizonen artera,
lagunak, pozez, dakus
gogoaren asmoak
zerutik lurrera.

Lurra, illun, dalarik,
ametsez ondua da
giza-semietan,
lurraren illunpetik
etorri leikezanak
itxaron pozetan.

Lur ain maitegarria,
zabaldu zure erraiak
gizonen aurrian,
fruturik ederrenak
gozartu dagiguzan
bizien lurrian.

Lurra eder dalarik,
zerua zer ete da?
sari-orduetan,
emengo on guztiak
egun bateko dira
zeruko pozetan.

Gozotasun aundia
dauka giza-semeak
zerua lorturik,
gorako jaiio giñan
ta aintza Jainkoari
biotzez gurturik.

Gauza aipagarria
itxaropena dogu
bizien artean,
bakezko gozamina
egite onen bidez
lortzen da zorian.

ARDOA

Lurra emankorra da
mendi ta soloetan
era askotara,
perretxiko ta sagar,
beti opaka dago
giza bizitzara.

Frutu eder bat ba da,
besteak aztu barik,
solo zabaletan,
gozaro eta eder
agertzen dira lurrez
matzen aienetan.

Garitza ta artotza
bere bereak ditu
lur maitegarriak,
patata ta tomate,
beti opaka daukaz
lur aintzagarriak.

Mordo zoragarriak
matz zuri nai baltzizka
dagoz maztietan,
matz zuria eder da,
baltzizka politago
mazti egaletan.

Mendi egal orleia,
prest dago goizaldian
biotza zabalik,
prisku eta nai sagar,
gogoz eskeinke dago
lurra apaindurik.

Ardo zuri ta gorri
matzarengandik datoz
gozokiz beterik,
ederrago zein dan,
bien artean ez da,
errez, jakiterik.

AGUR

Nire lenen agurra
bijoia Euzkadira
gogorik onenaz,
ain zara eder lurrez
ta ederrago gogoz
zure izakeran.

Zure seme jatorrak,
eder dira biotzez
lurraren gaiñean,
euzko jakituriak
eguzkia dirudi
mundu zabalean.

Agur, lurralde maite,
tontor eta bizkarrak
orlegiz jantzirik,
soiñeko ederrena
aukeratu zenduen
orlegiz ondurik.

Agur euzko gizona,
zure biotz buruak
nauke arriturik,
ona egiten jarrai,
zure izen jatorra,
beti omendurik.

Agur itxas urdiña,
zabaletan ederren
eguzki aurrian,
emon da zabal zazu
arrain frutu nausia
euzkoen artian.

Agur euzko lantegi,
jakituriz, jokatu
lanaren aurrean,
lan eta maitasuna,
beti izan daitezela
euzkotar lurrean.

GERORA BEGIRA

Gerora adi dago
giza-seme jatorra
bizien lurrean,
zorion-bete dago
ederrezko jantzirik
zeru urdiñean.

Bakezko bizia da,
zorionez betea,
Aitaren aurrean,
lurra eder dalarik,
zerua zer ete da
zorion betean.

Giza seme jatorra
betirako sortu zan
lur bitxi onetan,
lurra eder dalarik,
zerua zer ete da
aintza aundietan.

Euskalerra maitea
zerura adi dago
zurtasun guztiaz,
bizia eta aintza,
gogo onez nai ditu
zeruan Aitagaz.

Zeru edertasuna
bardin bagea da
beren ederrean,
zerura bidea da
lur txit aintzagarria
bizitz onenean.

Euzko seme jatorra,
zur dabil lurrean
zoriaren billa,
ez dau ezer galdu nai
ederraren ederrez
zerura begira.

URRUNDIK IKUSTEN DOT

Urrundik ikusten dot
basatxe zabal zuria
mendi egalean,
aintza ta gorasuna
bere-bereak ditu
zugatzen artean.

Eguzki aintzatsua,
goizian goiztik dator
urdin ederretik,
bizia ta ederra
biak bat egin dira
goiko tontorretik.

Udaberri goizian,
erarik onenean,
alai-alai dago
bakarrik eta pozik,
argiz ingurutaruik,
askozaz pozago.

Baserri pozgarria,
zorionetan dago
orlegi artean,
zelai eta zugatzak,
gogoz agurtzen dabe
edertasunean.

Lur sendo aintzatsua,
bizienetan dabil
zugatzak indartzen,
euskal aritz ederrak,
bizi opaka dagoz,
lurra bedeinkatzen.

Txori abeslariak,
inguruan jabilkoz
urretxiñoletan,
baserri ta bakea
urrezko biur dira
eguzki printzetan.

ERRUKIA

Errukia gura dot
eta ez ondasunak
aldi eder ontan,
errukizko egintzak
bizia sortzen dabe
giza lan-bidetan.

Erruki-zalea da
gizonen onerako
bizitz eder ontan,
maitasuna nai dau
bizitza indartzeko
gizarte onetan.

Negarrez dago seiña
goizeko orduetan
miñak samindurik,
amari deika dago
bere estu-aldian
samiñez beterik.

Gora goraka doa
mutillaren bizia
lanagaz indartuz,
errukia gura dau
ta ez indarkeria
norbera ondatuz.

Seiña mutiltzen doa,
berez dagokionez,
sendiaren aurrez,
indar-zalea ez da
buru-argitasunez
eta ez biotzez.

Zentzuna gora doa,
biziak irakatsiz
gizarte auzia,
alkartea bear da
argiak zuzendurik
erruki bidia.

ITZA

*Abots zoragarria,
gora gora bizi da
euzkoen artean,
mendi eta ibarrak,
gogoz artuten dabe
itza biotzean.*

*Itzez itz sortua da
baserri ederretan
izkun argitsua,
basetxe kabietan
liraindu dau bizia
indarrez betia.*

*Lorarik bikaiñena
dirudi euskal itzak,
eder apaindua,
argi-burutsua da,
onginaiez ondurik
beren etorria.*

*Bertsolari bikaiñak
nunnaitan, itzak
euzkoen omenez,
itza eta burua
biak bat egin dira
euzkotar indarrez.*

*Itzez itz sortuten da
euzkoen almenez
izkuntz zoragarria,
euzko gizontasuna
itzak gogoz daroa
ederrez betia.*

*Olerkari bikaiñak
euskaldun kutun dira
izkuntza liraiñez,
jakituri ta itza
biak bat egin dira
gizonen ederrez.*

TONTORRIK TONTOR

Tontorrik tontor doa
gazte zoragarria
eguzki argitan,
ikuspegi aundiak
zoratzan dabe argiz
mutilla goietan.

Nora-nai begiratu,
ederra indartzen doa
aitz zorakorretan,
arkaitzak alkar adi,
lurra indartzen dabe
aunditasunetan.

Itxasoa urdin urdin,
an bealdean dago
ederrez jantzirik,
arkaitzak eta ura,
biak Jainkoarenak,
almenez ondurik.

Tontorrik tontor doaz
euskaldunen semeak
zoramen aundian,
ederraren ederra
eskeiniaz Jaunari
arkaitzen gainian.

Euzko eder zaleak
ametsetan doazi
edurren artean,
mendi zoragarriak
gizonentzako dira
bizien lurrean.

Ta zu, arkaitz illeda,
argi bizitan zagoz
eguzkiz ondurik,
oi... zein eder dan goia,
edurrez ta eguzkiz,
guztiz apaindurik.

TXIMIST

Trumoia dardar dabil
goi-alde guztian
indar gogorkeriz,
odeiak illun dagoz,
goiagaz jaubetuta,
gorroto bereziz.

Trumoi dardaretara,
tximistargia dizdiz
dator goitik bera,
zerua eta lurra
biak aidetzen ditu
beraren erara.

Legorte mingarriak,
aspaldi, xurgatu dauz
lur maitegarriak,
lurra negarrez dago
samiñik aundienaz
ixuriz malkoak.

Euria parra parra
ba-dator goizaldian
zerutik lurrera,
lurra eskerka dago
pozik aundienagaz
zerura begira.

Tximista dirdariak
ekiñean darraike
mendi egaletan,
zugadi orlegiak,
gora gora, begira
itxaropenetan.

Ur aberatsak datoz
ta lengo legortea
urre biurtu da,
lorerik bikaiñenak
sortu dira baratzen,
zerua agurka.

SINISMENA

*Bikaiñetan bikain da
Jainkoa onartzea
lurreko bizian,
berez eder dalarik,
gauz arrigarria da
lurtarren artian.*

*Jainkoa adi dago
maitasun onenagaz
sinismendunari,
jarraitu egidazu
azken-egunera arte
zure Aitonari.*

*Giz-almen goitik dago
Jainkoa ikustea
gizonen eskarrez,
gaur, ontzat artzen dogu
guztien Egillea
zerutar doaiez.*

*Egitan, ederra da
Jainkoa onartzea
bizitza onetan,
zorioneko seme
biurtuten dau Jaunak
beraren bidetan.*

*Egiz, gauza bikaiña
Jainkoa onartzea
gure Jaun Jabetzat,
Jauna onartzen daunak,
saririk ederrena
izango beretzat.*

*Sinismenez doatsu,
giza-semea lurrez
Jaunaren aurrean,
Jainkoa onartzeak
damotso gizonari
laguntza bidean.*

AGINDUA – ALKAR MAITATU

Biziaren Jaubeak
agindurik onena
damotse lurtarrei,
alkar maite zaitezte,
on egiñaz lurrean
batak besteari.

Maitasun egintzak
bake-zoria dakar
bizien artera,
danon alkartasuna
bear dau bizitz onek
zerutar erara.

Alkarte maitasunak
giro onena dauka
gizonen artean,
gaiztakeria kendu,
ta gogoz, errukitu
giza bizitzean.

Gizadia ontzen da,
biotzak alkarturik,
ontasun bidean,
maitasun egizkoak
bizia urretzen dau
bizien lurrean.

Maitasunaren itzak,
berez bakea dakar
giza biotzera,
maitasunez ontzen da
alkartasun bizitza
zuzentasunera.

Maitasun legeak,
berez, dakar bakea
argitasunean,
biotzak alkartzeko
egi ederrena da
zorion bidean.

EGUERDIA

Ordurik ordu doa
gizonaren bizia
lurrean moldatzen,
orduak eder dira
gizonen onerako
bizia indartzen.

Goiza argitzen doa
eguzki urreagaz
dizdiz ederretan,
itxasoak ben-agur,
ta mendi orlegiak
goiz zoramentan.

Gau illun laiñotua,
egiz da bildurgarri
trumoiaren artean,
jo ta ke dabil soiñuz
ta gizonen bizia,
lo-atsedenean.

Eguerdia dator
alderdi danetatik
pozaren jarrioz,
itxaso ta ibaiak,
eder-miñetan dagoz
ainbesteko gozoz.

Goizaldia ba-dator,
ta laiñoak agurka,
menditik ba-doaz,
urdiña agiri da
mendi tontor ostean
beren ederragaz.

Eguerdi erdian
mai baten inguruan
guztiak jarririk,
baskari bizigarri,
aintzaz beterik dator
maira sukaldetik.

DIZDIZERA EDERRA

Dizdizera ederrez
zeru urdindik dator
gure aizkidea,
utsik bako izarra,
gogo onenaz dator
mundu zabalera.

Eguzki zoragarri,
lurrak onartzen zaitu
gogorik onenaz,
zure etorkizuna
urrez jantzita dator
zerutar argiaz.

Sortzez utsik bagarik,
lurraren laguna da
biotz barrenetik,
mesede egin nairik,
zabaldu dauz ateak
goizian goizetik.

Indartu ta poztu,
ixilik dagon lurra
laiñoen menpian,
zure goiko argiaz
orbiztu lur maitea
zentzun onenian.

Urrezko bola baten
zabaltzen dau biotza
gizon omenian,
lurra begira dauka
eguzki dirdaitsuak
zeru-goï aurrian.

Dizdizera ederra
zeru urdiñez dabil
maitasun eztitan,
goizian goiztik dator
zugadia agurtzen
urrezko printzetan.

ETXEZAIN

*Etxe zuri zuria
zugadipean dago
giro ederretan,
orma nausi sendoak
bizia zaintzen dagoz
ardura bizitan.*

*Ondasunak ondasun
bere barnean dagoz
ixiltasunean,
bakea eta giltza
ditu bere jagole
gizonen aurrean.*

*Txakur zuria dago,
egunez eta gabaz,
ondasun zaindari,
ixil ixilik dago
inguru guztia,
eder zoragarri.*

*Arkaitz aurrean dago,
bidez inguraturik,
etxe nagusia,
txakurra ernai dago
beren zeregiñetan,
arduraz betia.*

*Menditik bera datoz
gizon talde politak
iskillu zorrotzez,
etxe-zaiña zur egon
txakur sendoenari
agiñak zurtuez.*

*Gogoz etorri ziran
armaz eta adorez
uste aundietan,
etxe-zain eta txakur
indartsuago ziran
euren almenetan.*

JATORRA

Ederretan ederrak
gauza asko dagoz lurrez,
begien aurrian,
egiz zoragarri da
lur biribil maitia
beren izatian.

Arkaitz zuri sendoak
eder-miñetan dagoz
goraiño igonda,
zeruaz bat eginda
urre laiñotan dagoz
zelaira begira.

Arkaitzak eta zerua
biak bat egin dira
urdin ederrean,
lur dana adi dago
alkartasun ortara
poztasun onean.

Solo eta zelaiak
biziagaz ondurik,
aurkituten dira,
fruturik ederrenak
damotsez gironari
goizetik gabera.

Zugadi almentsuak,
gora goraka dagoz
mendi egalean,
ol ederrak opaka
gogorik onenagaz
ixiltasunean.

Ta zu, gizonen gizon,
guztion jaube zara
lurraren gaiñian,
guztien zuzendari
bururik zurrenagaz
bizien lurrian.

SENDIA

Lora bikain bat ba-da
zentzundunen artean
mundu ederrean,
usain gozozko lore,
ederrenetan eder
alkartasunean.

Sendi maitegarria,
lorerik ederrenak
zuk alkartzan dozuz,
jakituria dator
zure baratz ortatik
argia zabalduz.

Guraso zentzundunak
egizaleak dira
bizitza aurrian,
usain gozozko lore
egia berbera da
bizitz omenian.

Bizitza oiñarria
alkartze ortan dago
zoriontasunez,
maitasun ta laguntza
alkarri eskeiniz
urrezko biotzez.

Egizko onginaia
sendi ortan bizi da
alkartasunian,
gogoz alkartzan ziran
seme-alaba danak
Aitaren etxian.

Itza eta otoia
Jainko laguntasunez
indartuta doaz,
guraso eta seme,
pozez beterik dabiltz
Jaungoiko laguntzaz.

SALBATZAILLEA

Jaun guztien Jaun zara
bizitzaren Sorlea
zeru ta lurretan,
berez zara Ongille
lagun danen artean
bizitz eder ontan.

Zure menpean dagoz
sortu diran guztiak
lur bedeinkatuan,
mendiz eta itxasoz
argitik illargira
dabiltzaz kantuan.

Oi... goiz zoragarria,
zure aurrean dozu
maisuen Maisua,
ertilari guztiak,
gogoz gurtzen zaitue,
Egille Altsua.

Jakintza gurgarria
zabaldu dozu lurrez
bizitz onerako,
gizona zoriontsu
ta bakez bizi dedin
urte askorako.

Maitasuna dario,
Jesus, zure biziak
bizien artian,
ona eskatzen dozu
gizonen biotzetan
bizien lurrian.

Maitasunaren garrez
emon zendun bizia
Salbatzaille Jauna,
odol dana ixuriz,
jarri dozu gizona
zerura begira.

ZORIONEKOAK

*Ainbeste seme leial
agertzen dira lurrez,
Jaunaren oiñetan,
gizon zur maitaleak,
onginaiez, dabiltzaz
ekintza onetan.*

*Ikasi ta ikasi
ari da gizon ona
eskola maitian,
argitasuna nai dau,
bizitza indarturik,
gizonen artian.*

*Zorionekoa da
jakituri zalea
bizitza onetan,
argiak zuzentzen dauz
ibilbide illunak
gizonen bidetan.*

*Zorionekoa da
ongille zale dana
bizien artean,
onak ontzen dau lurra,
maitasunez ondurik
giza bizitzean.*

*Zorioneko dira
otoi-zale direnak
bear-izanetan,
gora sinisdunaren
eskari txit apala
eguzki sorreran.*

*Zorionekoa da
maitasun ongi-naiez
errukitzen dana,
errukiak daroa,
beartsuei lagunduz
Aitonarenagana.*

GOGOA

Gogo bedeinkatua
zeruetatik dator
onginaiz betea,
goi-aldietan dago
ontasunaren Sorle
Jaun ta Jabea.

Gizona indar barik,
ezin izan on-zale
bizitza onetan,
laguntzaillea bear
zuzena onduteko
egizko bidetan.

Gogoa gora adi
laguntza billa dabil
asmorik onenaz,
errukia gura dau
lurreko anaientzat
gogo guztiagaz.

Nire gogo goitarra
Euskalerrira doa,
biotzez, zabalik,
erri eta eskola
goi ardurez bijoaz
egiak ondurik.

Euskalerra maitea,
zoaz, gora goraka,
asmo onenetan,
lurra eder dalarik
zerua ederrago
zorion aunditan.

Euskaldunen gogoak
lurra baiño gorago
dauka elburua,
zeruak osotzen dau
beren eder guztiaz
euskaldun gogoa.

BELARRIA

Entzumena on da,
belarria bear da
bizitz lagungarri,
gizon bat entzun barik,
galduta dago lurrez,
guztiz barregarri.

Mendietako itzak
eder dira zelaian
aizkide artean,
argiak ondu ditu
adizkideen itzak
anaitasunean.

Belarria eskolan
bear bearreko da
jakintza bidian,
entzumen on bagarik
ezin zuzendu ezer
jakintza-saillan.

Belarria bear dau
txori abeslariak
zugatz adar puntan,
bestela ezin kanta
gauz eder egokirik
zelai orleietan.

Belarria bear dau
artista goi-argiak
ederrez ondurik,
abesti ederrenak
belarritik jatorkoz
miñak abesturik.

Ate-zain txakur zurrak
belarri biak daukaz
zabalen zabalik,
zarata txikiena,
urriñetik entzuten dau
zaunkaz gogorturik.

OROIGARRIAK

Oroigarriak dira
bizitzaren egunak,
on dana egiñez,
ta aurtxo aro aldian
egin ziran otoiak
zoriontasunez.

Oroigarriak dira
aurtxo maitegarriak
egindako lanak,
gurasoen esanak,
maitasunez eginda,
osotu direnak.

Oroigarriak dira
sendi artu-emonak
maitasun bidean,
bakea eta poza,
ontasunez daroetz
bizitz ederrean.

Oroigarriak dira
ertilarien kantak
plaza zabalean,
guraso eta seme
danak, batean, dabiltz
gozamen onean.

Oroigarriak dira
euskaldun partiduak,
ertiz jolasturik,
jakituri ta eder
biak batera dabiltz
buruz zuzendurik.

Oroigarriak dira
euskaldunen legeak
maitasunez ondurik,
zuzentasuna dabe
gidari nagusia
ona egin nairik.

ALAITASUNA

*Biotz barrendik dator
egiak lagundurik,
gizonaren poza,
on egiteak dakar,
notiñak bear daben,
zoriontasuna.*

*Lagun-arte ederra,
buruz zurrak direnak
ta biotz apalak,
alkartasun orretan
alaitasuna daroe
gizon zentzundunak.*

*Alaitasuna dago
guraso eta sendi
alkartasunian,
sendi-lanak eginda,
edertzen da bizia
egizko bidian.*

*Lorerik lora dabiltz
urrezko erletxoak
eztiaren billa,
alaitasunez doaz
zelai orlegi zear
gozoak batuta.*

*Senditar maitasunak
alkartzen dau bizia
zuzentasunagaz,
guraso eta seme,
egiz alaitzen dira
ona egiñagaz.*

*Erle guztiak agur,
pozez doaz etxera
egazkada onez,
eguzki ederretan,
bizi-bizi doazi
zoriontasunez.*

EDERTASUNA

*Edertasuna dakust
mendi-goï magalean
argizko diztiraz,
ederretan eder da
zugatz aundi bikaiña
lora zuriagaz.*

*Edertasunez dakust,
goizez errekaldea
izotzagaz zuri,
urrez dator argia,
dizdiz ederretan,
izketan lurrari.*

*Edertasuna dakust
arkaitz sendo artean
zerura begira,
urdin maitegarriak
besarkatu dauz aitzak
arrien gogora.*

*Edertasuna dakust
baratza orlegian
loraz apaindurik,
lorerik ederrenak
zuri-gorriak dira,
txit diztiraturik.*

*Edertasuna dakust
apainduri guztiaz
mendi magalean,
ide zoragarriak
betetu dabe lurra
basetxe aurrean.*

*Edertasuna dakust
baserri bikaiñean
eguzkira adi,
teilla gorri-gorriak
eta orma zuriak
euskaldun irudi.*

BARATZA

*Ene baratz maitia,
artu nire agurra
biotzik onenaz,
ain zakusdaz ederra,
lur guztia ondurik
lore bikaiñenaz.*

*Baratza lur maitia,
eder zagoz guztia
orri orleietan,
nora nai begiratuz,
ez da ederragorik
inguru danetan.*

*Alderdi danetatik
begira nagokizu
aspertu ezinik,
ederraren ederrez,
doi ederrenez zagoz
guztiz indarturik.*

*Nire atxur leiala
zure menpean dago
gogorik onenaz,
bere gurari dana
lanean osotzen da
asmo jatorrenaz.*

*Nire atxur maitia,
pozez doa zugana
giza jakituriz,
atxur ta gizona
zuregana doazi
lanaren poz biziz.*

*Ederraren ederrez
loratuta zakusdaz
argi printzapean,
betoz euri ederrak,
betoz argitasunak
sasoia danean.*

LAUAXETA

Giza seme jatorra
Laukinizko gaiñean
sortu zan lurrera,
maitasunak lagunduz,
egun-senti ederrez
urbilduz argira.

Berezko doai argiz,
gozaro eldu ziñan
euzko parnasora,
ta zuk beti erantzun
gogorik onenagaz
euskal itz erara.

Argien argi zara,
zeruak lagundurik,
euskaldun lurrean,
zerua eta lurra
maitegarriak ziran
Laukiniz gaiñean.

Goienengo mallara
eldu ziñan olerkiz
euzko lur guztian,
euskaldun jakintsuak
saritu zinduezan
itz eder argian.

Argia artu zendun,
doai zoragarria,
txinparta artian,
egiz zaindu zenduan
ertizko doai ori
bizitza guztian.

Olerkari argia
erriak maite zaitu
gizon eta olerki,
itza goratu dozu,
euskaldun izatea
agertuz maiteki.

GOIKO MENDIA

Gora begira nago,
gauza aundietara,
nere baserrian,
ederren zer ete dan
ezin erabagirik
izadi guztian.

Lurraren mamin ona,
ixil ixilik dago
beraren bizian,
eguzki ta euri,
maitekiro artuz
ongi etorrian.

Zenbat eta gorago
ederrago dirudi
lur zoragarriak,
aintza ta gorasuna,
berez berez darioz
izadi maitiak.

Esker-miñetan dago
oparo, lur guztia
mendi egalean,
gora ta ederrago
zugatzak eskeini-
edertasunean.

Mendi egal bitxia,
on orniturik dago
beren izatean,
orlegiz dana eder,
zugatzik bikaiñenak
aurkestuz aurrean.

Mendi gain zoragarri,
eguzkipean dago
goietara adi,
inguru oro eder
zoramen bikaiñetan,
zerua dirudi.

AUZOKIDE

*Auzokide bikaiña,
onez inguraturik,
aurkitzen da lurrez.
Etxe zuri zuriak
alkar begira dagoz
zoriontasunez.*

*Auzokide lagunak,
gogorik onenagaz,
dabiltzaz lanian,
guztien ontasuna
ikusi gura dabe
zorion batian.*

*Bakea agiri da
sendi danen artean
onberatasunez,
ixil ixilik dagoz
etxe zuri guztiak
alkar maitasunez.*

*Basetxe zurietan
soloak, eder, dagoz
etxe guztietan,
maitasuna dario
baserritar giroak
auzo guztietan.*

*Laguntza dator goizez,
on egin nairik, pozez,
urko lagunari,
orma zuritan gora,
gozo doa bakea
izketan Jaunari.*

*Peru eta Manutxo
auzokide zintzoak,
ernai bizi dira.
Etxe biak doazi,
ordurik onenean
alkar laguntzera.*

ERBERA

*Urrundik ikusten dot
euskaldun erbera
mendi barrenean,
mendiz inguraturik,
bakea gozartuaz,
bizitz onenean.*

*Euzko erri maiteak,
alkartasun onean,
daroa bizia,
biotzaren indarrez
dabiltzaz on egiten
maitatuz erria.*

*Alderdi danetatik
mendi zoragarriak
daukaz inguratzen,
argia ta bakea
dira bere lagunak
bizia goratzen.*

*Mendi goira begira
aurkitzen da erria
bake ederrean,
usain gozozko lore
maitasuna da bertan,
giro onenean.*

*Erritik urtekeran,
dana orlegi dago,
ederrez jantzirik,
solo zabal liraiñak,
sasoian sasoikoa,
garitzaz ondurik.*

*Arago ta ederrago
intxaur zugatz sendoak
lozez jantzi dira,
urtea ondo dator
ale gozoz beterik,
errira begira.*

ERGOIEN

Goizalde eder baten
erri jator bat dago
euskaldun izenez,
kale ta basetxe
bietara bizi da,
ondo zoramenez.

Gorantza begiratur,
ederren zein ete dan,
ezin konturatu,
zugadi orlegiak
ala arkaitz zuriak
guztiak almentsu...

Kaleak zuzen zuzen,
gorantza adi dagoz
pozaren pozagaz,
etxe barruak argiz
ondu dauz eguzkiak
beren almenagaz.

Tontorrik tontor dabiltz
txori egazlariak
euren jolasetan,
azkarren zen ete dan,
ezin argitaratu
bolada aretan.

Etxeko biztanleak,
zoriz beterik dagoz
eguzki urretan,
leioak zabal zabal,
ta eguzki urrea
bere dirdaietan.

Mutil azkarra doa
txorien abi-billa
zugatz orlegira,
ta, bat batean, dakus
txori alai mordo
janari eskaka.

ZELAIAN GORA

*Zelaian gora doaz
gizon argiak pozez,
erriko jaietan,
kanpaiaren deia da,
din dan, bolendan
torreko leiotan.*

*Jendez beterik dago
Eleiz zuri zuria
mendi tontorrean,
sinismena bizi da
maitasunez ondurik,
Eleiz ederrean.*

*Geroago ta pozago,
eleiz inguru dana
jendez beteturik
egun onak emoten,
zoraturik dabiltzaz
alkarri poz pozik.*

*Abade eta erri,
otoian asten dira
kurutzaren bidez,
Eleizan dago Jauna
ta erria Jaunagaz
Mezaren bitartez.*

*Kanpaiak dei dagitse,
ta txapela kendurik,
guztiak barrura,
Eleiza eder dago
garbitasun guztiaz,
ondo apainduta.*

*Itzaldia entzun da,
poztu dira guztiak
alkartasunian,
Jauna eurekin dago,
egirik ederrenak
entzunda Eleizan.*

NERE AMETSA

Nire ametsen amets,
bide zuzendaria,
sortu iat gaur goizez,
mundu zabal onetan
egia deika dago
aukera bearrez.



Abadetzaren ametsa
zerutik etorri da
izarren artean,
egi ta maitasuna
bear ditu erriak
zuzentasunean.

Egiz, gauza aundia
gizona goratzea
izar danez goitik,
zeregin aundiena
egintza ortan dago
egiaz ondurik.

Amets zoragarria
giza-salbamena da
egi osoagaz,
lurraren goitik dago
gizonak bear daben
zoria gatzagaz.

Amets egin dot amets,
betirakoa dala
zoriontasuna,
milliñoiak lagunak
gurtzen dabela gogoz,
Jaun Alguztiduna.

Amets egin dot amets,
ez dabela amairik
zoriontasunak,
bake ta maitasuna
lagun on dituala
zeruko bizitzak.



ARIZMENDIARRIETA

Ainbat mesede egin dautsazuz
euskaldun jende askori
Jaungoiko Itzak esan ebanez
lagunduz beartsueri.

ARIZMENDIARRIETA

Jose Maria, zer ikusten dok,
zer nai dok ire errian,
zer egin nai dok lagunen aldez
Mondragoiko lantegian,
zer esaten deuk giza-semeak
beren izerdi artian,
zer merezi jok gaurko gizonak
Jainkoaren izenian...

Anaitasuna eskatzen jagok
Aita onena, betitik,
guztiak bere seme diranez
maitatzen ikusi nairik;
bizi guztia eskeini dautsak
lan ederrena eginik,
bizitza arek... ik eriotza
Jainkoari eskeinirik.

Zenbat lan ein dok apaiz bizitzan
gora ta bera begira,
gizon pobriak naituk goratu
ondo bizi izatera;
Jainkoa goian, gizona beian,
i oa bien erdira,
zeruetako jakituria
ekarri nairik lurrera.

Mondragoitarrak, pozez, beterik,
kantari nator bidean,
zuen apaiza Markiñarra zan
gogo ta biotz betean;
Bizkaitik jun zan argi gozoa
egi barri usaiñean,
Aitak esana egitearren
langille maite artean.

ZUZENDARIA

*Euzko bizitz guztiak
zuzentasuna nai dau
zearo lurrean,
zintzotasun bagarik
bizia txarto dabil
gizonen artean.*

*Zuzentasunak dauka
on giroan bizia
artezkari ta zintzo,
alkartasuna dator
erri baten onean
egizko bidetik.*

*Euzko lege jatorrak
nai ditu euskaldunak
bizitza gidari,
egia ta argia
ederrenak bai dira
euzko zuzendari.*

*Egiak goratu dau
euskaldunen bizitza
erri eder ontan,
euzko gizon jatorrak,
zuzentasunez dabiltz
bizitz arloetan.*

*Euzko seme leiala
zintzotasunez dabil
beraren bizitzan,
egun zoragarriak
bizi nai ditu lurrez
erri eder artean.*

*Euzko zuzendaria,
gora goraka doa
legearen bidez,
egirik ederrena,
beti aukeratu dau
egite zurrenaz.*

EUSKERA

Izkuntz zoragarria
agertu ziñan lurrez
euzko zelaietan,
ederrik bear ba-da,
jakituriz goitua
buru argietan.

Ederra berez zara
izatez argiturik
duintasun ona,
Euskalerra osoa,
beti da zuretzako
kabirik onena.

Biotz biotzez zara,
maitasunez ondua
gizarte osoan,
jakituria dozu
ezaugarri bikaiña
zure izatean.

Usain gozozko lore,
izkuntz ederragorik
ez dago lurrean,
Jakituri mamiña,
ta jakintza joskera
dozuz biotzean.

Goi urdin orretatik
eldu ziñan lurrera
euzko babesera,
euzko seme jatorrak
apaindu zinduezan
euzkotar erara.

Izkuntz zoragarria,
ederrik bear ba-da
mundu zabalían,
euzko seme jatorrak
landu zaitue lurrez,
edertasunian.

OTOIA

Itz bedeinkatua da
mundu zabal onetan
gizonen gurariz,
giza-indar txikiak
laguntasuna bear
bizitza pozgarritz.

Zeru-goi doatsua
lurrera adi dago
errukiz beterik,
ta lur gizagaisoak
laguntasuna bear
biotzez ondurik.

Otoirik ederrena
Jesusek emon eutsan
giza minduari,
laguntasun guztia
otoitz orretan datza,
guztiz maitegarri.

Zeru-lurren Jaubea,
santua izan bedi
izen eder ori,
guregan etor bedi
zure aginpidea,
guztiz maitegarri.

Zoriontasunean
egiten dan erara
egin bedi lurrez,
zure gurari dana,
emen egin dedilla
giza-alkartasunez.

Egiaren indarrez
jokatu dagigula
lur eder onetan,
ez egiguzu itzi
ziltzaldietan jausten
bizitz labur ontan.

GORUETAN

*Ertilarien lana
agertzen da lurrean
gorueta-bidez,
egiz ederra zara
bear zoragarria
asmo bikaiñenez.*

*Goruetan diardu
etxeko andra onak
suaren aurrean,
gauz bi alkartu dira
sua eta gorua
negu otz baltzean.*

*Eginkizun jatorra,
ederrik bear ba-da,
euskaldun errian,
etxeko andra piña,
guztiz arduratuta
euzkotar lurrian.*

*Lana zuri zuriaz
aita ta semearentzat
diardu gertuten,
amaren ardurea
jatorra da egitan,
etxea goratzen.*

*Usain gozozko lore,
etxeko batasuna
lanaren bidean,
goruak alkartzen dauz
guraso eta seme
maitasun onean.*

*Kaltza zuri zuriak
ta abarka dotoreak
ditu apaingarri,
perira doa aita
bei barria erosten
etxeko ongarri.*

LAIÑOA

Laiñoz illuntzen doa
arratsalde beranduz
erri ingurua,
gero ta baltzago
mendi-inguru danak
tximistaz orroka.

Mendi egaletik
beiak etxera datoz
trumoiz bildurturik,
kortako ate ama
itxaroten egoan
zabalen zabalik.

Gero ta gogorrago
trumoien zaratea
sua eriola,
arrats-bera gogorrak
triskatu nai zituan
mendi ta erria.

Amama maitegarri
ta aitita zoragarri
leiotik begira,
tximista dator goitik,
dardara bildurgarriz,
menditik errira.

Mutiltxoa zur dago
leioaren ertzean
zaratak entzuten,
gauz ain arrigarriak,
nun sortzen ete diran
belarriz entzuten.

Itxasoa baltz dago,
aizea zoli dabil,
laiñoak sorturik,
eguna illundu da
ta gaba soiñulari
dardaraz beterik.

LEIOPEAN

Etxe zuri-zuria
lur gogoangarrian
aurkituten zara,
guztia da ederra
zure inguru ortan
ametsez beterik.

Teillatu gorri-gorri,
ados datoz zuregaz
zelai orlegian,
larros zuri-gorriak
usainduten zaitue
eguzkiz batian.

Leiopea eder da
zeruetara adi
argiz goizaldian,
izadi mamintsua,
gora begira dago
izarren aurrian.

Leiope aintzagarri,
zoramenetan zagoz
eguzkiz beterik,
zerua bikain dago,
ederra dariola
biotz biotzetik.

Usain gozozko lore,
edertasun guztia
dator leiopera,
baratz eder usaiña
dardara biziz dago,
etxera begira.

Ta zu, leiope maite,
eder ondurik zagoz
zugatzen aurrean,
txori abeslariak
alaituten zaitue
goizalde ez-tian.

BIZIA EDER DA

*Bizitz aintzagarria,
gora goraka dator
goiz zoragarrian,
ametsa dario goiz
argiaren sorreran
urdiñen artian.*

*Gizonaren bizitza,
berez, eder dalarik
goizalde bizian,
eguzkia txukundu da
zelai orlegietan
pozaren bidian.*

*Egiz bizitz ederra
baratzan aurkitzen da
lore bikaiñetan,
danak dagoz goraka,
egunaren sorreran
eguzki-izpitan.*

*Usain gozo dario
larrosadi gorriak
zelai orlegian,
danak argira adi,
urre bitzetan dagoz
zeru-goi aurrian.*

*Lorerik ederrena
notiña da lurrian
zerura begira
usain gozozko lore
gizona on egiten
zuzenen erara.*

*Bizitza ederra da,
gizonak on egiten
urko lagunari,
maitasun egizkoak
onduten dau bizia
gutziz goragarri.*

ZENTZUNA

Izar argi dirudi
gizon egi-zaleak
lan-ararzoetan,
zurtasuna dabil
gizon jator ongilleen
egintza bidetan.

Egizale bideak
aunditzen dau gizona
gizarte bizian,
egia ta zuzena
lore ederren dira
gizonen bidian.

Gazte zuzen-zalia,
maitasunez ondurik,
izar bikaiña da,
loretan lorea da,
usain gozoenetan
jarrita bizia.

Ederren eder zara
Jainko Alguztiduna
bizien lurrian,
aintza eta gorasun
danen Erregeari
gizonen bizian.

Egia berbera da
gizonen zuzendari
bizitza bidean,
egirako sortu da
giza seme jatorra
lurraren gaiñean.

Zentzuna ederra da
adimendun artean
egiz indarturik,
egiak alkartzen dau
zurtasuna bizitzan
argiaz ondurik.

ATSEDENA

Egite aundiena
Jauna gurtzea da
lur santu onetan,
Egillea maitatu
atsedena artzeko
zori ederretan.

Anaitasuna nai dau
Jaungoikoak ikusi
gizonen bizian,
Jaunarengan bat gara,
anaikiro ederrez,
lurtarren artian.

Lan-bide onetatik
etorri bearco dau
bizitza-giroak,
urkoak maitatzea,
berez dau ederrena
bizian gizonak.

Buru eta biotza,
ekin arazoetan,
aspertu bagarik,
otoitz-bizitz ederra,
gogo-onez, erabili,
bizia ondurik.

Urkoa maitatzea
egi aundiena da,
anaiak izanik,
gizon beartsuena
laguntza billa dabil,
samiñez, mindurik.

On egiñaren orde
bakea sortuko da
betiraun guztian,
gogo oneko lanak
zoriona dau lagun
atseden bizian.

EDERREN EDERREZ

Ederraren ederrez
apainduriz jantzi da
baratza orleia,
lirio zuri-zuriz
edertu dau babesa
aintzaz onetsia.

Aintza ta gorasun
Jaun Ongilleari
baratza-erdian,
gizonak ezin leike
edertza ori sortu
izarren aurrian.

Aintzaz beterik dago
gizonaren atxurra
baratza orleian,
atxurra ta lorea,
gogoz alkartu dira
lurren omenian.

Ederarren ederrez
aldatu da lur otza
bikaintasunian,
euria eder zara,
lurrari lagunduten
bizitz ugarian.

Ta zu, ortzetiko jaun
urrezko eguzkia,
lurrera adi zagoz,
urree dariozu,
lur mamiña onduten
zerutar goi-asmoz.

Zerua eta lurra
biak bat egin dira
asmorik onenaz,
lurra lore biur da
egun-senti goizian
larros gorriagaz.

ZURTASUNA

Zurtasun lan ederrak
atsegingarri dira
gizonen artean,
gizon zur balioa
ez da, errez, on eisten
mundu zabalean.

Gizon zur egizkoak,
gogoz egiten ditu
lan zoragarriak,
bere jakituriaz,
egitan, ondu ditu
argizko bidiak.

Zurtasuna eder da
gogorik onenagaz
bizien lurrian,
gizon zur langilleak
emon dautse ogia
beartsuei maian.

Gizon zurren etxean
ogia maian dago
aukera onian,
semeak pozik dagoz
aitaren zurtasunaz
bizitza aurrian.

Zurtasun egizkoa
erririk erri doa
goizian goizetik,
egia daro lagun
bizia zabalduen
biotz biotzetik.

Erri zuzen zaliak,
aurrera doaz pozik,
bizitza giroan,
zurtasun ta egia
lagun kutunak dira
ontasun arloan.

IKASLEA

Bizien zuzendari
buruen argia da
bizitz bikain ontan,
egiz zoragarri da
giza-argitasuna
lur santu onetan.

Ederretan eder da
argia gizonengan
bizitza maitian,
bitxi zoragarria,
dizdizera ederrez,
bizitza aurrian.

Eguzkiak lurra lez,
buruak gizadia
argitzen da pozez,
eguzkia eder da,
burua ederrago
goi argitasunez.

Gizonak argia nai
bizitz bide onetan,
aurrera bidean,
gizona ta argia
biak batera doaz
edertasunean.

Ikasi ta ikasi,
gizona ontzen doa
jakituri argiz,
jakituria duin da,
gizonaren bizia
duintzeko egiz.

Ikasle jaun jatorra,
gogoz dabil ikasten
jakintz aundietan,
jakituriak berez
zuzendu bearko dau
itza gizonetan.

ZELAIK ZELAI

Zelairik zelai doaz
erle ezti-zaleak,
goiz, udabarrian,
argia pozgarri da,
eztia gozoago,
zelai orlegian.

Lorerik ederrenak
agertu dira goizez,
zabaldi orleian,
usaingozozko lorez
ondu dabe zelaia
edertasunian.

Eztilari bikaiñak,
arro dabiltz goizetan
zelai ederrean,
bitxiz beterik dagoz
zelai zabal orleiak
eguzki menpean.

Zugatz mardul aundiak,
gora goraka dagoz
bizitzaz beterik,
ederren zein ete dan
zelai eder aretan
ezin oarturik.

Eztia ta erlea
alkarregaz dabiltza
loretik lorera,
gizon biotz garbia
erle artean dabil
gabetik goizera.

Sagar eta madari
melokotoiz batera
lorez jantzi dira,
baratza bat dirudi
lorezko zugadiak
argitasunera.

GORA TA GORA

Gora ta gora doaz
gizonaren asmoak
bizitz ederrian,
zoriontasun-itzak
ondu dagiazala
asmo-onak lurrian.

Gora ta gora doaz
ait-onaren semeak
ontasun bidean,
egirik ederrena
ontasuna bera da
etxe bizitzean.

Gora ta gora doaz
euskaldun abestiak
lur bikain onetan,
gora euzko kantariak
abesti gozenez
euzko lur-aldetan.

Argiz gora bijoa
euzkotarren izkuntza
erri maite ontan,
egitan, ederra da
izkuntz zoragarria
euzko biotzetan.

Gora ta gora doaz
jakituriz, gizonak
bizitza maitian,
eguzkia eder da,
jakintza ederrago
bizien artian.

Zelaian gora doa
izkuntz aintzagarria
lozez apaindurik,
ederrenetan eder
izkuntz zoragarria
bitxiz urreturik.

ALKAR-IZKETA

*Eguzkipean dagoz
aintxiñako lagunak
kontu-zar kontari,
eguna ederra da
zerutik lurreraiño
argiz-dizdizari.*

*Bizitzaren barriak
arduradunak dira
jakintsu artean,
itza zuzendu barik,
ezin bizi gizona
bizitza aurrean.*

*Arazo ederrenak
gomutagarri dira,
gozaro ondurik,
egia eta itza
maitasunez doazi
alkar orbizturik.*

*Gizona itzik barik
illen artean dago,
samiñez, galdurik,
bizitza erdoitua,
larri larri bizi da
biotza mindurik.*

*Adiskide jatorrak,
gogoz, datoz goizetik
alkartasunera,
albiste bikaiñenak
itz zoriontsuagaz,
gogoz, emotera.*

*Itzak zabaltzen ditu
gizarteko biotzak
argitasunera,
anaiak anaiari
egi ta maitasunez
zabalduz biotza.*

ENTZULEA

Egiaren entzule,
beti izan zan zurra,
Perutxo jatorra,
zuzentasun-bidean,
gogoz jorratu eban
aizkide gidara.

Perutxo ta lagunak
eskola mutil piñak,
ondo alkaturik,
erriaren bizia
gogotsu maite eben,
egiz indarturik.

Gaztedi zentzunduna
Perutxok zuzendurik
euskaldun artean,
erririk erri doaz
zuzentasun opaka
bizien lurrean.

Gora-goraka doaz
zuzenbidetik zear
entzule jatorrak,
oroz-goitik egia
bizia edertzeko
onaren argiak.

Zuzentasun zaleak,
egirik-egi doaz
bizitza maitian,
alkartasuna dator
onbide ziurretik
gizonen bizian.

Eta zu, entzulea,
bizitz onduten zabiltz
lurraren gaiñian.
Oi, zein eder dan itza,
egiaz zuzendurik,
gizonen artian.

JAIKI JAIKI

*Jaiki jaiki, gizona,
jakituri artzera
bide zuzenean,
argia berez on da
gizonaren bizitzan
zuzentasunean.*

*Jaiki jaiki, gizona,
erria ikustera
beren almenetan,
izkuntz zoragarria
euzko artean datza
jakintz onenetan.*

*Jaiki jaiki, gizona,
argiaz zurtutera
egizko bidetan,
jakituri argia
giza bizia da-ta
euskaldun bizitzan.*

*Jaiki jaiki, gizona,
mendiak agurtzera
eguzki-urretan,
pozaren pozez dagoz
zugadi orlegiak
baso bizkarretan.*

*Jaiki jaiki, gizona,
bizia argitzera
izkuntz zoragarritz,
izketa berezia
euzko artean dago
lora zuri-gorritz.*

*Jaiki jaiki, gizona,
euskeraz itz eitera
izkuntz jatorrean,
eder ta jakintsua
lur onetan sortu zan
gizonen artean.*

EGUZKIA BERATZEN

*Eguzkia ba-doa
tontor ostean zear
beste alderdira.
Agur egun ederra,
egaz doa argia
beste magalera.*

*On asko egin dau
gaurko egun guztian
emengo aldetik,
agur eguzki urre,
dizdizera ederrez
mundua zaindurik.*

*Lur onak maite zaitu
egiaren bidetan
guztiz makurturik,
egun zoragarria,
urrez, ospatu dogu
eskarrez beterik.*

*Eguzkia ba-doa,
ona egin ondoren
solo zabalean,
lurra gora adi dago,
ona-gaitik agurka
illun nabarrean.*

*Arrats-bera ezitia
itxi dautso argiak
baratz orleiari,
dizdizera ederrez,
dagoz orri orleiak
zeru goira adi.*

*Argia ta illuna
mendi tontor ostean
besarkatu dira,
urre-gorritzko argi
itxasora joan da
jaia ospatzera.*

LAGUN-ARTEAN

Lagun artean dagoz
egirik ederrenak
goiko enparantzan,
egizaleak dira
Perutxo ta Manutxo
gizonen jakintzan.

Lagun artean dagoz
egi-zuzen zaleak
pilosopietan,
jakintza eder onek
argituko dau lurra
egizko bidetan.

Ta zu, lagun argia,
nora zoaz goizetik
argiaren billa,
itxas aldetik dator
urre gorritz jantzita
argi biribilla.

Gizadi aintzatsua
bizitzaren zain dago
itxaso aldetik,
giza lagun aundia
urrez jantzita dator
urdin zabaletik.

Argia ta egia
biak bat egin dira
giz adimenean,
zoriaren ederra...
eskar utsez ondurik,
bizien artean.

Goialde ederrenak
Maxa-gaiñean dagoz
urrezko jantzirik,
egiz, ederra zara
Maxa zoragarria
argiz bikaindurik.

MAXA

Balkoi bat dirudizu,
Maxa zoragarria,
euskaldun errian,
berez zara bikaiña
oiñetik ta burura
edertasunian.

Giza jakituriak
goratu zinduzan
mendien artian,
ederretan ederren
Barandiaran Jaunak
goratuz itzian.

Alderdi danetatik
goragarria zara
giza begietan,
Bizkai aldera adi,
balkoia dirudizu
igusgarrietan.

Ardi zuri-zuriak,
zoraturik dabiltzaz
zure magalean,
usain gozozko bedar,
txit atsegingarriak
gozartuz agoan.

Irrintziak entzunda,
zaldiak pozez dabiltz
mendan saltari,
gora ta gora Maxa,
dirautso eguzkiak
Maxa guztiari.

Gozoz beterik dagoz
mendiaren egalak
eztiak ondurik,
erle aintzagarriak,
goizian goiztar dabiltz
egoak zabalik.

TRUMOIA

Zerutar goi urdiña,
zabal babal egon da
goizalde argian,
urdiña izar gorritz,
miliñoiak agurka,
etorkizunian.

Itxaso urdiñean
aize miña sortu da
negarren artean,
zeruko arpegia
teloï baltz biurtu da
neke saminpean.

Aizea gogor dabil
bizia mindu nairik
batetik bestera,
zugatzak larri dagoz
aizeak astinduta,
zori txarretara.

Giza mindu guztia,
estu dabil gaisoa
zauritu bearrez,
arkaitzik gogorrenak,
bilin-bola, dabiltzaz
tontorren samiñez.

Laiñoak asi dira
burruka gogorrean
gorrotoz beterik,
gero ta baltzago
doa goialde dana
laiñoz ondaturik.

Trumoia zital dabil
zartada gogorretan
goialde guztian,
tximist bildurgarriak,
ertzik ertzera doaz
irrintzi gorrian.

URTEGI

Oi... urtegi urdiña,
amets kabia zara
zure abi ortan,
luzeraz ta zabalez
amesgarria zara
bizitza orretan.

Dizdizera ederrez
zerura adi zagoz
ongi-nai guztiaz,
bakea ta argia
zure altzoan dagoz
ontasun osoaz.

Urtegi urdin-urdin,
arrain biziz beterik,
daukazu altzoa,
danetan ederrena
zein ete dan zuretzat
bere bizikoa.

Era askotakoak
bizi dira zuregan
alkartasunian,
guztiak pozez dagoz
urdintasun orretan
anaitasunian.

Eguzki gori-gori,
zugana adi dago
goi-argiz beterik,
arrain bitxi guztiak
esker-miñetan dagoz
biotza zabalik.

Ura eta zerua
biak bat egin dira
edertasunian,
ta gizonak doazi
janariaren billa,
goiz, egun-sentian.

JAIA

Gora goraka doa
Jai aundi ospetsua
ederren ederrez,
jende talde guztia
Jauna goratu nairik
zoriontasunez.

Egunik aundiena
ospatu gura dabe
Aitagaz batian,
ederragorik ez da
jai ospatzea baiño
Aitaren onian.

Adore ta indarra
bere baitan daroaz
erri indartsuak,
Jaunaren Jai aundia,
egiz ospatu nairik,
biotzez onduak.

Aitaren etxeraiño
eldu dira guztiak
pozaren pozagaz,
egizko alkartzeak
barrena indarturik,
aurrera, daroaz.

Jaiaren deadarra
zeru-goitik jatorke
argitasun biziz,
geuria da geuria
Aitaren egun ona
ontasun gurariz.

Otoi eta kantauak,
bizi-bizi dabiltzaz
aldara aurrean,
seme leialtasuna,
egitan agertu da
Aitaren etxean.

BIDEA

Gizon arduratsua
bide on billa dabil
bizitza-aurrean,
bizia zaindu nai dau
gogorik onenagaz
lurraren gaiñean.

Bide zabal zabalak
mendietara doaz
gizonen ongarri,
idi burdia dator,
irrintziz goitik bera
giza bizigarri.

Ideaz naiz aritzez,
zoli dator burdia,
bikain apaindurik,
bide amesgarriak,
opaka dauka oiña
egoak zabalik.

Miliñoiak izarrak
bata baiño bestea
bikaiñago dira,
ederraren ederrez
bizia duintzen dabe
zerutar erara.

Gizona adi-adi,
baserriko leioan
zoramen bizian,
izarra ta ederra
biak bat egin dira
gabaren erdian.

Lur baltzizka maitea,
ontasunez bete da,
gora aditurik,
zerua eta lurra
bizi gozotan dagoz
argiz zoraturik.

SIÑISMENA

Lora eder bat ba da
egiagaz ondurik
giza baserrian,
egirik aundienak,
gogoz maite ditu
lurraren aurrian.

Siñismen aintzatsua,
zuri eske gizona
azkartu da lurrez,
zure argi ederra
zerutik etorri da
goitar maitasunez.

Siñismen agurgarri,
biotzez maite zaitut
zerutar argiaz,
zure doai santuak
garoaz zeru goira
poztasun guztiaz.

Gizona zeruagaz,
gogotsu alkartu da
siñismen argiaz,
oi... doi zoragarria...
lagundu gizonari
ezilkortasunaz.

Siñismen ta zerua
biak alkartu dira
onaren bidian,
señismenak daroa
lurtar giza semea
zerurantz goizian.

Betirako bizitza,
zorionez beterik
damosku zeruak,
siñistu ta gozartu,
lurtar giza-semea,
zeruak onduak.

JAUNAREN DEIA

Jaunaren dei argia
jatorko gizonari
zerutik lurrera,
zatoz, gizon zintzoa,
zerua gozartzera
zorion erara.

Jainko errukitsua
lurrera adi dago
gizadi onari,
egiz maitatzen ditu
lurtar seme-alabak
zeruetara adi.

Gizadi samindua,
erne-miñetan dago
lurraren aurrian,
beti gorantza adi
zeruaren ederra
ikus gurarian.

Abots maitegarria
zeru bertatik dator
gizonen artera,
abots danen artean
ez da ederragorik
eldu lur ontara.

Errukia gura dot
ta ez gogorkeririk
sendi on maitian,
Jainkoa maitez dago
bere kutunei adi
ontasun onian.

Lurtar maitegarriak,
emen daukat zuretzat
betiko zoria,
au ederra dalarik...
jokatu lortu arte
zeruko argia.

BIDE ZUZENA

Gizon egizalea,
beti arduraz dabil
bide lorrotzetan,
lanbide asko dira
gizonaren bizitzan,
egiz ta benetan.


Lanbide guztietan
bat da bereziena
gizonen bizian,
betiraunekoa da
bere zeregin dana
gizonen artian.

Arlo egokiena
zein ete dau bizitzan
langille jatorrak,
norbere izatea
aztertu bearke dau
gizon egizkoak.

Bide guztien bide,
egizko maitasunaz,
zeru goira doa,
zuzentasun guztiaz,
bidea ondurik,
Aitaren etxera.

Bide aukeramena
ta norbere almenak
ondu bear dira,
bion artean doa
egokitasun bidez
egizko argira.

Biderik ederrena,
egiaz bat eginda,
zeru goira doa,
an, dagoz on guztiak,
betiren betirako,
Aitagaz batera.



Mutil gazteak arduraz dabiltz
euren nortasun onian
bide ziurak billatu nairik
zuzentasunez lurrian.

ERRUKIA

Zoragarria zara
itz guztien artean
eskarrez ondurik,
gizonaren biotzak
errukia gura dau
onaren bidetik.

Erruki on-zalea,
zatoz gizon artera
egizko bidetik,
lagundu gizonari
bear-latz gogorretan
errukiz beterik.

Lurtar gizon zintzoak
lengo gaiztakeriak,
gogoz bazterturik,
errukia gura dau,
gizon danen bizia,
egiz ederturik.

Erruki unkigarri,
zatoz ainbat lasterren,
gizarte aldera,
mundua larri dago,
etsaiak zapaldurik
beren naietara.

Gora goraka doa
gizonaren biotza
erruki bidetan,
lora zuri bikaiña
zara zu errukia
giza biotzetan.

Errukia gura dau
gizadi saminduak
bizitza onetan,
usain gozozko lore
izan zakioz beti
gizonei miñetan.

ARGIA

*Argi bi maite ditut
nere bizitz guztian
lur ta zeruetan,
argi-ge ezin bizi
gizonaren biotza
zelai ederretan.*

*Argia nai da lurrez
arnasa indartzeko
biriki barnean,
argia nai begiak
olerkiak sortzeko
euzkoen artean.*

*Urrezko eguzkia,
dizdizera ederrez,
dator goizaldian,
zerua eta lurra
biak bat egin dira
maitasun eztian.*

*Argiak indartzen dau
euri eder ondoren
zelai orlegia,
ta garitz indartsuak,
gogorik onenagaz,
dakarre bizia.*

*Beste argi bat ba da,
ezilkorra berenez,
betiraun guztian,
maitasuna dario,
biziak zoriontzen,
betiko bizian.*

*Argi ta maitasunak
sortzen dabe bizia
zoriontasunez,
egiz ederrena da
zeru-goiko argia
Aitaren onezpenez.*

SERBITZAILLEA

Otseintza gauz ona da
beartsuei lagunduz
esturaldietan
biotz errukitsua
lagunik onena da
giz-arazoetan.

Illunabar larrian
gizon bat agertzen da
munduaren aurrez,
laguntzarik onena,
bear dozun guztia
damotzut biotzez.

Miñez, negarrez, egon
gizon errukarria
bide bazterrean,
egoera larria
giza semearentzat
naigabe artean.

Mundu guztia egon
illunpe baltzenean
bideak galdurik,
ta bizitza Jaubeak
Semea bialtzen dau
errukiz beterik.

Samiñezko egunak,
luze dira negarrez
odol eriotan,
giza-seme larria
itxaroten egoan
min samintsuetan.

Ta Semea Kurutzan
odol artean dago
maitasun guztiaz,
laguntz aundiagorik
munduak ez dau artu
gogorik onenaz.

APALA

Giza seme apala,
egiz zara bikaiña
lur eder onetan,
nundikan artu dozu
izate eder ori
egizko bidetan...

Andre apaltasuna,
gora-goraka dabil
batzar nagusian,
begi guztiak dabiltz
apaltasun ondoren
lur aintzagarrian.

Giza apaltasuna
onoimen aundia da
argiz ederturik,
gizon zintzo leiala
lora zuria lez da,
ona zabaldurik.

Mutil apal-apala
lora ederra da
baratza orleian,
usain-gozozko lore
danen artean eder
apaltasunian.

Gizon-apaltasuna
itz maitegarria da
langille artean,
iñor ez dau iraintzen
ta bere gogoa da
otzeintza lurrean.

Neskatille apala,
ondo ikusten dabe
begien argiak,
ederrik bear ba-da...
gora apaltasuna
eta aiskideak.

EUSKALDUNA

*Euzko seme altsua
eder zara izatez
jatortasunian,
zure gizontasuna,
gora goraka dabil
gizonen aurrian.*

*Zure duintasuna,
gozatsu agertzen da
egiaz pozturik,
gizon duin zara beti
jakituri bidetan
itzez ederturik.*

*Dedu eta lotsea,
egiz maite dituzu
alkartasunean,
jakintsuen batzarrak,
ongi onartzen zaitu
legezko bidean.*

*Gizon almen ederra
maitasuna dalarik
bizitz eder ontan,
zure biotz bikaiñak
ez dau nai gorrotorik
bizitz egunetan.*

*Egizko maitasuna
lora ederrena da
on-giroz beterik,
mundu zear dabiltzaz
zure seme-alabak
ona zabaldurik.*

*Biotz zabal ederra
egiaz bat eginik
dabil errietan,
euskaldun gizadiak
egi ta maitasuna
daroaz bidetan.*

ETXEBARRIA BINGEN

Euzko seme jatorra
izatez ta egitez,
ondo bikaindua,
dizdizera ederrez
argitu dozu gogoz
lurrean zerua.

Bidasolotar Luisa,
bakioko lorea
ederrez jantzirik,
zerua zan zuretzat
bizi-toki bikain au,
egitez ondurik.

Itxiar Etxebarria,
emakume argia
Mungiaren aurrez,
erri aundi eder bat
zugaz dabil ikasten
zoriontasunez.

Julen Etxebarria
kimika sail aundian
jakintsu zarana,
gogo onez jarraitu
Euzkadi argituten
kimika erara.

Ander Etxebarria
lerrolari bikaiña
euskaldun gizadian,
bide zurrak argitu
zurtasun gogoagaz
Euzko Aldundian.

Josu Etxebarria
gogo iztilaria
jakintza bidetan,
argitu jakituriz
Euzko erri maitea
aurrerapidetan.

Jon Etxebarria
ondasun zuzendari
jakintsu artean,
emon da zabal zazu
egizko bide zurra
aurrerapidean.

IZARDI

Egun-senti ederra
dagersku goizaldian
euzko lurrez-goitik,
ederrik bear ba-da
gure lagun artean
eskarrez ondurik.

Urdiña ta izarrak,
alai alai, jatorkuz
agurka goizian,
zeru guztia dago,
pozez ta dardaraz,
izarren artian.

Miliñoiak argiak
alkar begira dagoz
urdiñaren pozez,
urdiña eder dala,
izarrak ederrago
goitar zorionez.

Izardi zerutarra,
ederraren ederrez,
zeru goian dago,
izar zoragarriak
gogoz aurkitzen dira
gero ta pozago.

Oi... zeru goi urdiña,
urrez beterik dago
dizdiz ederretan,
aintza ta gorasun
zabaltzen ditu gabaz,
edertasunetan.

Laster dator eguna
izarrak agindurik
giro onenian,
eguzki zoragarri
danen aurrez jarri da
zeru urdiñian.

ALDATZ GORA

Bide eder bat dago
mendigoirantzakoan
zabaldi aurrian,
eguzki ta urdiña
zoragarriak dira
egun dotorian.

Aldatz gora gizona
pozez beterik doa
sinistu ezinik,
ain zoragarri dakus
zerua eta lurra
argiz ederturik.

Ikusgai guztietan
bikaiñen zein ete dan
galdetzen gogoak,
gora ta ederrago
dirudie, alaiki,
zugatz ta arkaitzak.

Txori abeslariak,
argiz lilluraturik,
dabiltz zugatzetan,
abesti dotoreak
jalkiz mendietara
egun bikaiñetan.

Oi... TXIMISTONDO,
inguru, txit alaia,
gora-gora dago,
zelai ta zugatzez
egoki orniturik,
oparo-oparo.

Zorionekoak, egiz,
bertan, bizi direnak
eguzki aurrian,
abesti jatorrenez
gozartuz belarriak
goiz-aro eztian.

ARA NUN DIRAN

*Ederretara adi,
lilluraturik dago
gizon adimena,
zein ete dan ederren,
ikuspegi guztien
zorakortasuna.*

*Mendiaren magala,
bikainkiro jantzi da
lorezko antzera,
zugadi ta zelaiak,
gora-goraka dagoz
edertasunera.*

*Geldi doa gizona
ertilari antzera
ederra gozartzen,
ain da zoragarria,
jakituriz ondua,
lurrean agertzen.*

*Bizi-barri dario
inguru txit ederrak
zeruaren aurrez,
ederren zer ete dan
ezin asmatuala
zoriontasunez.*

*Gizonen adimenak,
iñundik ezin sortu
ain gauz jakintsurik,
jakituri argia
dirdai dago zelaian
eztiz igurtzirik.*

*Esker-miñetan dago
mendi egal orleia
Sorle Altsuari,
maitasun onenagaz
goratzen dau zerua
izarretara adi.*

ITXASALDEA

Sortze agurgarri da
itxas zabal urdiña
izadi aurrian,
ain zara aundi, zabal,
berezko edertasunez
mendien aurrian.

Aberastasun aundiz
inguratuta zagoz
zure babesean,
arrain aundi ta txiki,
era danetakoak,
daukazuz zuregan.

Izontzi ederrenak
zuregana doazi
goizian goizetik,
euzko arrantzaliak,
egiz goratzen zaitu
biotz barrenetik.

Itxaso maitegarri,
zabaldu biotz ori
euzko gizonari,
euzkoak maite zaitu
borondate samurrez
itxasora adi.

Itxas urdin zabala
dizdizera urdiñez
alai-alai dago,
opaka dau biotza,
arraiñak emonagaz
gosea kentzeko.

Lurra ta itxasoa
anai-arteko dira
euzkotar errian,
itxasoa arraiñez
eta lurra gizonez
dabiltzaz aidian.

IKASTOLA

Giza jakituria
bear-bearreko da
gizonen bizian,
giza jakintza bear
bizia zuzentzeko
lurraren gaiñian.

Ikastola jatorrak
gogo onez dabiltzaz
erriaren aurrez,
aurrera, jarrai leial,
erria argituten
jakituri zurrez.

Euskaldun Ikastolak
toki jatorrak dira
ezikuntzarako,
irakasle argiak
bide onak dakarrez
bizitz guztirako.

Gora ta gora doaz
neskatilla ta mutil
jakituriagaz,
ikasiaz erria,
obeto biziko da
zuzentasunagaz.

Euskalerra maitiak,
berez dauko zentzuna
eusko izatean,
erri aintzagarriak
jakintz ona bear dau
bizitz ederrean.

Gora ta gora beti,
euskaldun Ikastola
jakintza onian,
irakatsi ederrak
biztuko dau argia
euzkotar errian.

ETXABURU

*Etxaburu bikaiña,
izatez zara eder
lurraren gaiñean,
nundik-nai begiratzuz,
zoramena darizu
orlei ederrian.*

*Esker aldean dago
itxas urdin zabala
mendiaren bean,
arraiñekaz ondurik,
miresgarria zara
zure ederrean.*

*Aurrez dago Allusti
zelai eder bategaz
loraz apaindurik,
mendi bikain ortatik
dator goiz-eguzkia
lurrak zoraturik.*

*Aurrekaldean dago
ederrez eder dana
MAX zoragarria,
zugadi ta idetzaz,
benetan apaindurik,
urrezko mendia.*

*Edertza orren aurrez,
giro onetan dago
Etxaburu maitea,
eguzkitara adi
urrezko printz-artean
bizitza guztia.*

*Lur maitegarri ori
gogo onekoa da
ale garaietan,
sagar, prisku, madari,
dana emon naian
gurari bizitzan.*

URRIÑERA

*Urrindik ikusten dot
Euskalerra maitea
bizitz ederturik,
gora goraka doa
erri bizitz giroa
indarrez goiturik.*

*Erri txit indartuak
agertuten doazi
zelai aldietan,
lantegi nagusiak
jabetuaz lanean
toki bikaiñetan.*

*Urrindik ikusten da
erri jaun nagusia
beren egiñetan,
gizonak zurki doaz
biziaren ondoren
goizeko orduetan.*

*Urrundik ikusten da
ke, bizitzaz ondua,
tximinian gora,
bizia ontzen doa
lanez ta jakituriz
bear dan erara.*

*Lantegi agurgarri,
bearra eta poza
emon gizonari,
sendi maitegarriak,
egiz izan daitezcan
lurrean ugari.*

*Urrindik ikusten da
lan-aurrerapidea
euskaldun errian,
lan-solo eder ori
sendotzen iraun dedilla
gizonen bizian.*

KERESETA

Izen zoragarria,
aurrez aur daukazu
begien aurrian,
oi... lurralde bikaiña,
amets onen kabia,
or-dago zelaian.

Txori bikain aldetik
kantu zoragarriak
doaz biotzetik,
abesti bikaiñenak,
gogoz artzen dauz lurrak
txorien pikotik.

Baserritar semea,
alaitsu, dago adi
lurralde guztira,
guztia eder dago
zugatzez eta lorez
adimen argira.

Zugatzak loratuta,
usain gozotan dagoz
zelai orlegian,
laster datoz emaitzak
zugatzen edergarri
lurraren aurrian.

Mendi gain aintzatsuak,
gora-goraka dagoz
alkar babesturik,
txoriak pozik dabiltz
lorazko zugatzetan
oiñak tinkaturik.

Oi... kerisa gorriak,
millatan eder zare
zugatz adarretan,
zuen gozotasunak
osasuna darío
giza gorputzetan.

MENDIGUREN

*Mendian gora doa,
iñoiz nekatu barik
agure zartxo,
ibai aldeko seme...
ezin atsegiñago,
pozkiroz, ba-doa.*

*Aldatz zoragarriak
olerki bat dirudi
eguzki-aurrean,
aritzaren dago
dizdizera ederrez
urdiñarenpean.*

*Gora ta ederrago
aurkitzen da mendia
irudi-bizitan,
usain gozoko lore
zoragarriak dagoz
zugatz adarretan.*

*Eguzkiz ederturik,
zoramena darío
izadi guztiak,
arkaitz zuri zuriak,
gora goraka, dagoz
ondurik argiak.*

*Mendi-goi egalean
orleia agiri da
ederrez jantzirik,
erle amesgarriak
ekiñean dabilzaz
lanean gogotik.*

*Zerua urdin-urdin,
ta eguzki-urra
aurkian jarririk,
zoramenetan dagoz
zerua eta lurra
alderdi danetik.*

MUNGIA

*Erriz inguratuta
aurkitzen da Mungia
beren ederrean,
mendi bikaiñak daukaz,
ederrez apaindurik
inguru danean.*

*Jata mendi altsua,
lirain, agertuten da
itxaso aldetik,
aurrez aur agertzen da
Berriaga liraiña
orlegiz ondurik.*

*Soillube nagusia,
guztien burua da
sendotasunian,
zabalez ta sendoz
danen jaun ta jabe da
edertasunian.*

*Mendi-goi orlegiak,
gora-goraka dagoz
zeru-goi aurrian,
guztiak dira eder
Mungirantza begira
eguzki argian.*

*Mendi eder erdian
erri bikain bat dago
Mungia izenez,
gizontasunez jator,
jakituriz argia
zoriontasunez.*

*Mentxaka ta Zameza,
eleiz gizon argiak,
irakas bidean,
Euskalerra ta Roma
jakintzaz argiturik
bizitz ederrian.*

IBAIALDE

*Ibailalde guztia
gai ederrez jantzi da
egun argietan,
euri ta eguzkia
alkar lagun dabiltzaz
apaindurietan.*

*Keriz zugatz gorriak,
aberats dagoz lorez
usain gozoetan,
txoriak pozik dabiltz
uda-goiz ederrean
zugatz adarretan.*

*Usain gozozko lore,
bitxirik ederrenak
datoz lur gaiñera,
Perutxo ta Manutxo,
goizetik joan ziran
ibai ingurura.*

*Ibai alde bikaiña
zoramenetan dago
zugatzen indarrez,
sagar prisku ta madari,
alerik ederrenak,
ugari, emonez.*

*Ederraren ederrez
arrituta egozan
izadi aurrian,
lirio zuri-zuriz
edertuta egoan
lurra aurre aldian.*

ARITZ ADARREAN

Aritz-adar bikaiña
zoragarrizko dago
zugatz orlegian,
argiak bereziki
bizitz on bat damotso
goizian-goizian.

Zugatza gogoz doa
asten eta sendotzen
mendi magalean,
egunak egunai
indar onak dakartsoz
lurren omenean.

Aritz adar sendoa,
lora bitxiz jantzi da
udalen goizian,
euri ta eguzkia
gogo onez dabiltzaz
lan zoragarrian.

Amar lur indartua
gogorik onenaz dabil
pozezko lanetan,
bizia ta indarra
damotsoz zugatzari
egun-sentietan.

Euskal aritz orleia,
gero ta biziago,
indartzen mendian,
lurralde ingurua
zugatzik sendoenez
edertzen bizian.

Eta zu, euskal aritz,
zoragarria zara
euzko mendietan,
zeru-goitik izarrak,
adi adi daukazuz
argi bizietan.

GARI META

*Garai onez eldu da
uda urdin ederra
baserri aldera,
garitza pozgarriak
ebai-girotan dagoz
eguzki argira.*

*Garitza deika dago
egun-senti goizian
giza-gogoari,
aita eta semeak
gariak ebatera
gogo onez doazi.*

*Igetaiak on dagoz,
gogoak biziago
garitza aurrian,
sola deika dago,
gari-urre opaka
giro ederrian.*

*TXIMISTONDO BIZIA
garitzaz inguraturik
aurkitzen da lurrez,
urte zoragarria,
osasuntsu, bai dator
TXIMISTARREN onez.*

*Langille errimeak
ebai-alan dabiltzaz
TXIMISTONDO goian,
gari-sailla ba-doa
gizonen esanera
giro onenian.*

*Garitz zoragarria
lur gaiñean dago
eguzkia artzen,
ta langille jatorrak
gogo onez dabiltzaz
meta aundiak sortzen.*

SOLOZABAL

*Izen guztiz ederra
izadiaren aurrez
jarrita dagona,
solo zabal-zabala,
gozaro aurkitzen da
beraren erara.*

*Solo-zabal ederra,
nasai aurkitzen da
eguzki aurrian,
bizia zabaltzen dau
alderdi danetatik
gogo onenian.*

*Mendi sakon artean
zabaldi on bat dago,
ongi orniturik,
euren artean dago
solo-zabal nausia
ederrez ondurik.*

*Arto landara piñak,
gora-goraka, datoz
orlei ederrian,
egunik egunera
orbiztuten doazi
giro onenian.*

*Solo ertzetan dagoz
sagar, madari, prisku,
era danetatik,
danak solora adi,
bizia apainduten;
ederrez ondurik.*

*Solozabal guztia
artaburuz ondu da
ertzetik ertzera,
solo zabal-zabala
bizi eskeintzen dago
gabetik goizera.*

EGUZKIAURRE

Eguzki aurrez dagoz
bitxi eder guztiak
mundu zabalean,
guztiak alai dagoz
argietara adi
egun ederrean.

Itxas zabal urdiña,
bikaiñetan bikaiña,
gora adi dago,
luze ta zabaleraz
olerkia dirudi,
ederrez, oparo.

Dizdizera ederrez,
beraren zer guztia
amesgarria da,
arrañak egaz dabiz
itxas urdin erdian
pozak eraginda.

Zu, mendi eder ori,
egitan zara bikain
mundu zabalean,
zure duintasuna
ederretan eder da
eguzki aurrean.

Laukariz, gain bikaiña,
eguzkiz bizi zara
bikaintasun ortan,
euria dozu lagun
sasoi ona danian
frutu etorkeran.

Baratz amesgarria,
lorerik ederrenez
apainduta zagoz,
larros zoragarriak
lirio zuriekin
zoraturik dagoz.

ZUBIA

*Ibai eder bat dago
mendiaren barnean,
txit lilluraturik
ederaren ederrez
zoramena dario
begiak bizturik.*

*Ibai-alde guztia
eder-miñetan dago
zorabiatu-rik,
lirio zuri zuriz
eta larrosa gorriz
guztiz apaindu-rik.*

*Zu, arizti bikaiña,
zugatz guztien jabe
aurkituten zara,
zuri begira dagoz
zugatzik ederrenak
goi-urdiñetik bera.*

*Ibai egal zabala,
eder zara izatez
aritzen artean,
zugatzik bikaiñenak
lagunduten dautzue
zeure ederrean.*

*Ta zu, zubizarreta,
arri zuriz josia
uraren gaiñean
koroï bat dirudizu
ibaia apainduten
aritz bitartean.*

*Egitan arro dago
ibaialde orleia
eguzki urretan,
gizon ertilariak
abestiz gozaturik
eder omenetan.*

ERLEA

Erle eztilariak
amets girotan doaz
egazka aidean,
zeru urdiñez dabiltz,
aizea gozarturik,
eguzki aurrean.

Arin-aranga dago
itxaso urdiñean
astelen goizean,
jaiak ospatuteko
egun egokiena
uraren gaiñean.

Adiskide on dira,
goizez eguzkipean
eundezka izarrak,
poza eta ariñak
edonora daroaz
urratuz aideak.

Itxas gizon argiak,
gogoz, gertatu dira
itxaso aurrian,
urak oparo dagoz
urdin dizdiz artian
itxas zabalian.

Mendi egal liraiña,
on dago eguzkitan
dizdira ederrez,
gozamena dario
alderdi danetatik
erlearen pozez.

Jakituria dago
itxasoaren aurrez
mendi magalean,
zugatzak edertuten,
gero ta bikaiñago,
aritzen artean.

OGIA

*Garitza eder bat dago
etxe-zuri azpiko
solo zabalian,
zerua urdin dago
eguzkiaz onduta
beren ederrian.*

*Egunik egunera
garitza edertzen
argitasunera,
galburu mamintsuak
urretuten doazi
argien erara.*

*Etxeko ugezaba,
pozez beterik dago
soloaren aurrez,
igetaiak gerturik,
gogoak indartuta,
garitzaren pozez.*

*Martitzen egun eder,
ordu onian dator
eguzki argiaz,
aupa, mutil jatorrak,
gaur etxera doazi
garau ederrenak.*

*Ama gerturik dago,
laba-sua eginik
ogi erretako,
biar ogi zuriak
maian egongo dira
gure bizirako.*

*Egiz, ogi zuriak,
giro onian dagoz
bazkari orduan,
gora gure garitza,
gora laba-eder
maiaren onduan.*

MAITASUNA

Lore bikaiña zara,
ederretan ederren,
giza biotzean,
zure usain ezta,
poza zabaltzen doa
gizonen artean.

Lorerik ederrena
zeure izatez zara
mundu zabaluan,
kezka ta arantzak
larros biurtu dozuz
gizonen bizian.

Bake ta ongi-naia
eskeinduten zabiltzaz
gogorik onenaz,
zure urre izatez
alkartutten dituzu
biotzak pozagaz.

Maitasun zoragarria,
zerua eta lurra
daukazuz aurrean,
txit indartsua zara
gizonak goratuten
zorion bidean.

Gizarteko lorra,
ixilik ondu dozu
gizonen bizitzan,
zerua eta lurra
zeuk alkartu dituzu
gizonen baratzan.

Lurreko zoriona,
on-giroz sortu dozu
biotz minduetan,
eskerrak, maitasuna,
zure egintza onez
jarrai gizonetan.

SASIA

Solo ertzetan dagoz
sasitza nagusiak,
gogotsu, indarrez,
solo ertzak zaintzeko
bizigarriak dira
osasun ederrez.

Udarantza adi dago,
eguzkia maite dau
biotz barrenetik,
dizdizera ederrez,
pozik agertuten da,
barrez sasitzatik.

Gero ta sendoago,
pozik, zabaltzen doa
solo magalean,
solo maitalea da
eguzkia goratuz
biotz barrenean.

Sasitz bildurgarria
udara adi dago
bere asmoakaz,
lurra eskertu nai dau
adiskidetza onez
lorak emonagaz.

Sasitza sendoena
lora zuritan dago
udalen goizian,
gorantza begiraturik,
indartu egiten da
lorea sasian.

Lorea garautu da
masuzta biurturik
asmo onenagaz,
gosetientzat jana,
gozo-gozo eginda
eguzki argiaz.

OIU EGINGO

Mutiltxo maitegarri,
txit gorago bizi da
baserri pozgarrian,
mendira adi dago
amets gozoenetan
goiz aintzagarrian.

Kantu kantari doa
mendi magalerantza
goiz zoragarrian,
guztia eder dakus
bei zuri-gorrientzat
zelai orlegian.

Kantu kantari dabil
eguzkiaz batera
poztasun guztiaz,
jakituriz beterik
ikusten dau zelaia
lora zuriagaz.

Abesti samurrenak,
goiz oiukatzen ditu
eskola bidean,
jakintsu izan nai dau
gogorik onenagaz
euskaldun artean.

Kantu kantari dabil
lurraren ederragaz
biotza pozturik,
sagasti orleiari
abesti pozgarria
eralkiz gogotik.

Erritar sentitzen dau
bere bizitz maitia
txiki-txikitatik,
dana erriarentzat
zuzendu gura leuke
jakintzaz ondurik.

ZINTZOA

Gizon zintzoa, lurrez
izaki bikaiña da
zoriontasunez,
egi ta maitasunak
bizia ontzen dabe
lurtarren omenez.

Baserritar zintzoa
etxe arduraz doa
goiztar mendira,
ideak, deika, dagoz,
margorik onenean,
lanaren girora.

Gizonaren biotza
aintzaz beterik dago
idetza aurrean,
gora Jaun Ongillea,
idetza onen aurrez
egun ederrean.

Ide-sailla ba-doa
igetaiz eta segaz
lurraren gaiñera,
gogoz dabiltz gizonak
mendia ikusirik
edertasunera.

Euskal aritz jatorrak
gizonei adi dagoz
mendi zabalean,
gure euzko aritzak
maite dabe idea
lurrik onenean.

Kanpaiaren abotsa,
gogoz dabil aidean
eguzki argitan,
gogorik onenagaz
agur bat orduari
eskerrak emonaz.

SALBAMENA

*Zeru eder bat dago,
Ait onenak sortua,
bizi guztientzat,
Aitaren gogoa da
zoria emotea
bizitza zaritzat.*

*Bizien Egilleak
ezin dauz gaizki-ikusi
seme ta alabak,
egiz ondu nai ditu,
maitasun onenagaz
sortu dituenak.*

*Bake ta maitasuna
ikusi gura ditu
Aitak lur onetan,
egintza eder onek
alkartzea dakarre
zorion bidetan.*

*Beretar guztientzat,
atseden betikoa
dauka zeru-goian,
bakea ta poza
emoten daben itzak
betiko zorian.*

*Gizona ez da sortu
betiko nekerako
samiñen artean,
giza bizitz ederra
zorionerako da
sortua lurrean.*

*Beragaz gura ditu
seme-alaba danak
zeru ederrean,
aintza ta gorasun
abestuz Aitari,
poz, zorionean.*

ALDAREA

*Euskaldun parnasoan
itz eder bat ba-da
Aldara izenez,
gorengo otoi puntan,
Eleizan aurkitzen da
Jaunaren omenez.*

*Ume aintzagarriak
aldarara doazi
otoi egitera,
puntu eder aretan
Jesus berbera dago
gizonen erara.*

*Euzkotar gaztedia,
Jesus Aldaran dago
gu-gaitik bizirik,
maitasunez dago, an,
odol dana emonda
gure ona gaitik.*

*Euskalerra maitea,
Jesus adi daukagu
maitasun guztiaz,
iñoz, ezin dau aztu
erri onen bizia
gogorik onenaz.*

*Eliza deika dago
erri onen aurrean,
biotzez zabalik
euskaldunentzat nai dau
bizitz zoriontsua
on-giroz beterik.*

*Lurtar pozkarioak
ondasun gitxi dira
gizonarentzako,
Kurutzeko odolak
geiago eskeintzen dau
giza bizirako.*

JOSU

*Izen aundia da
Josu aintzagarria
zeru ta lurretan,
lurrak gora-goraka
alaiki gurtuten dau
inguru danetan.*

*Jakintza ta Almenez
bardiñik bagea da
zeru ta lurretan,
biziaren sorrera
beren eskuan dago
jakiturietan.*

*Aintza ta Gorasun,
gogorik onenagaz
Josu Altsuari,
Aren maitasun garrak
ez dauka inñun ertzik
opalduz lurrari.*

*Josuren maitasunak
zeru eta lurretan
ez dauka mugarik,
odol gorri guztia
maitasun onenagaz,
gogoz ixuririk.*

*Ta zu, Agirre jauna,
Josuren izenagaz
oroitua zara,
Salbatzaille berbera
izenez daroazu
goitik eta bera.*

*Izatez ta egitez
sendotzen daroazu
izen eder ori,
lurtar bizitz ederra,
gogoz opalduagaz
Jaun gutziz onari.*

EGUNA

Egunaren izena
bere legez da eder
gizonen artean,
maitasun guztiagaz
gizonak goratzen dau
eguna lurrean.

Egunak egunari
eguzkia dakartso
goizian goizetik,
argia ederra da
gizonen begietan
onguraz beterik.

Ezti utsa dario
egunak egunari
giza biotzetan,
argia ta bizia
alkartuz on-giroaz
egun ederretan.

Egun argi ederra,
txit aintzagarrria da
bizien lurrian,
egiz egun argiak
biotza askatzen dau
gizonen bizian.

Maitasuna dario
egunak egunari
giza biotzetan,
jakituriz ontzen da
gizonen bizitz-lana
bizitz orduetan.

Gora egun argia
gizonen onerako
mendi magalean,
usain gozozko lorez
jantziten da zelaia
aritzen artean.

ESKERRAK JAUNARI

Biziaren indarra
Jaunagandik artu dot
Euskalerra ontan,
egitan bikaiña da
Euzko lur aintzatsua
mundu zabaletan.

Gaiñik gain doa beti
eguzkiaren poza
bizia argitzen,
gain guztiak izketan,
zoramenetan dagoz,
zerua agurtzen.

Mendi tontor bikaiñak
nun-nai agiri dira
zerura begira,
ederren zein ete dan
ez da errez jakiten
bikaintasunera.

Euzko seme-alabak
erri onen ederrez
arriturik dagoz,
ederragorik ezin
aurkitu lei lurrean
gizonaren asmoz.

MAXA zoriontsua
danen artean dago
ederrez jantzirik,
ez aundi ta ez txiki,
bien artean dauka
biotza zabalik.

Egiz esan bear da,
gora gure Jainkoa
edertasun ontan,
O... Euskalerra maite,
gurtu zure Jainkoa
lur bikain onetan.

JAUNARI DEIEZ

Egiz gauz aundia da
otoi on bat eitea
Jaunaren aurrean,
gizonen izateak
laguntza bear dau
bizitz onenean.

Lenen lenen, gizonak
aita on bat bear dau
bizitza onetan,
Aitaren esanera
semeak ontzen dira
lurren egaletan.

Zeruko Aita ona,
errukior zakiguz
gure bizitzean,
Zu barik utsa gara
mundu larri onetan
gizonen artean.

Erri zintzo jatorra
Jaunari deika dago
gogorik onenaz,
zeru-goia gura dau
betirako bizitza
Aitaren laguntzaz.

Aita guztiz onena
zerutik adi dago
lur maite ontara,
gurari onenagaz
onbideratu nairik
bizien gogoa.

Amai bageko onez
Aita begira dago,
maiteki gizonei.
Euskadi berea dau
maitasun guztiaz
adituz lurtarrei.

EURIA ETA EDURRA

Lurra legor egoan
ta lagunak, arduraz,
bizitza aurrean,
siñisdunak otoika
legorte ain aundian,
dardaraz, lurrean.

Egunez eta gabaz,
gero ta gogorrago,
zaratak ortzian,
gizadia gora adi
euria itxaroten
laiñoen aurrian.

Odeiak sortzen doaz
zeru-goi urdiñean
beraren berariz,
urdiña ta laiñoa
biak alkartu dira
zorion gurariz.

Gogoz ta gogor dator
euri zoragarria
bake onenian,
egiz aintzagarri da,
zeru-goitik datorren
euria goizian.

Aizea gogor dabil
zeru ta lur artean
zerbait egin nairik,
laiñoak baltzituden,
Tximistondo dizdizka
lurra aideturik.

Besoak zabaldurik,
gora goraka dago
lur apala bean,
euri ta esker ona
biak alkartu dira
lurraren gaiñean.

TXIMISTONDO

Zelai bizkarrez zagoz
etxerik bikaiñena
lurrean pozetan,
argia dozu lagun
goizetik illuntzira
dizdiz ederretan.

Gabean bake ona
igetargiz ondurik
orma gain zuriak,
zelai zoragarriak,
danak etxera adi,
on-giroz beterik.

Tximistondo jatorra
zelai artean zagoz,
beti irriparrez,
zeru-goia aurrean,
lurra dozu oinpean
aberastasunez.

Tximistondo maitea,
euzko lur ederrenak
daukazuz aurrian,
eguzkira begira
danak pozez daukazuz
etorkizunian.

Tximistondo nausia,
lur sendo aberatsez
zagoz lagundurik,
zeure zeureak dira
baratzik ederrenak
loraz ederturik.

Antxiñako artotzak,
gaur patata sail dira
garau ederretan,
oi... gure lur maitea,
eskerrak damotzuguz
zori ederretan.

ZIDARREZKO EZTEGUAK

*Askoren deia ezkontzea da
munduko bizi bidean
gizarte lege jakiturizko
andre gizonen artean;
andrea, beti, gizonarentzat
laguntasun bikaiñean,
gizona barriz, andrearentzat
bizitz ametsez betean.*

*Senar emazte, lenen lenengo
barrua, pozez, beterik,
bizia dago irriparreka
itxaropenez jantzirik;
etxe bizitza, noiz, ikusiko
ale berriaz pozturik,
urte larregi bakardadean
maitasun lora bagerik.*

*Bernardino ta etxeko andre
begira dagoz leioan,
txoria nondik egaz joango
maitasunen jarioan;
egunak joan, alan etorri
urtien kalbarioan,
egunsentian txoria dator
txiruliruli giroan.*

*Bernardino ta Eusebi maite
loreen loren da semea,
etxe bizitza barri barria
pozez bete da gurea;
gaurtik aurrera eguzkia da
gure etxeko sukaldea,
zeruko izar argi argia
dizdizka dago umea.*

*Era orretan etorri zara
gaurko egun onetara,
ogei ta bost urte maitekor
eginik bake bizira;
bizitz indarra betorkizue
aurrerantzian etxera,
urte barriak, pozez, eiteko
lagun maitale gisara.*

ABESTIA

*Etxebarria, gizon erria
zuga izan nun kabia,
zure altzuan artu ninduzun
seme txikitxo barria;
lur onen gainez ikusi neban
eguzkiaren argia,
geroztik pozez, argitu ziran
nire biotz ta bizia.*

*Geldi geldika, ikasi neban
sendiko poztasunean
lenengo itzak maitez, esaten
guraso aldamenean;
euskal izkuntzak artu ninduan
bere biotz barrenean,
maitasun artan gizonduzteko
erriaren elkartean.*

*Jaioterria, berebizia,
Ander Deun Etxebarria,
baserri giro osasuntsuan
eginik aurtxo bizia;
neroni ere, antxe, nenbillan
soloetan jostaria,
euskal jolasez euskeraz bizi
baserri giro maitia.*

*Begiak, zelan, zabalduagaz,
alan, ikusten aurrean,
lenen lenengo, guraso onak
ta anai arrebak batean;
mai inguruan gosez beterik
urdailla deika barnean,
ura zan eder burdin osasun
azur austeko aiñean.*

*Geroztik barriz aunditzen joian
argitasuna buruan,
urten urrengo ikusi neban
jaiotetxea munduan;
ikusi ala maitatzen neban
etxea nire barruan,
maizter etxea izanagaitik
oberik etzan auzuan.*

ETXEA – ERRE

*Sua garratza zara
erruki bage,
minik ez dozu artzen
gizona ikusirik
indar-ge.*

*Teillatua urkultzen,
sua danetik,
ai nire kabi maite
betirako il-zorian
mindurik!!!*

*Ain zara biotzbage
indar gorria,
pistirik gogorrenak,
garrez, ilgo zendukez,
etoia.*

*Azkenez maite zaitut
biotz urturik,
bizia lertzen daukat
zure maitasuna
galdurik.*

GIZA - ARLOAK

I

Ezetik baietzera.
Aitarenean nengoan
goi argia soilik;
bizia itzala da
jaiobarri girotan
misterioz goitik.

Aita ta ama, pozik,
bizia sortu dabe
ez jakin garbian;
lurra ikaratu zan
aurtxoa ikusirik
negarreen artian.

Ain txikia zan; ain ez...
Ez zan bizigarria
azur ta mamiñez;
gaisoa, nora ator,
otsoz josita jagok
lur dana bekaitzez.

Txikia, baiña, zorrotz
amaren ugatzeri
esne zuritan ortz;
amagandik artu dau
sort iturri maitia
biziaren lorrotz.

Udabarri goiza da.
Umearen barrea
txit zoragarria;
amaren biotzetik
aitarengana doa
maitasun loria.

Nik ez nekian zer zan
umearen su garra
gurasoengana;
ortzak argia baiño
umeak geiago maite
guraso laztana.

II

Sei maietz joan ziran.
Sei urteko larrosak
zelaia lurrunduz;
eguzkia ta lurra
batera maite nitun
mutilla kozkonduz.

Nora oa mutilla,
jakituria artzera
erbestetarpean;
maisua ez ekian
nire izkuntz garbia,
ai zoritxarpean...!!!

Jolastu adi mutil,
sei urteko gatzetan
txirulirulitan;
poza sentitzen soiñak
odol zaiñetan zear
ura irakitan.

Maite ez naun gizona
daukat neure aurrean
umea zapaltzen;
gau baltzak il nai nindun
baiña euskaldun nintzan,
mintzairak argitzen.

Gabaz, amets egin dot
eskola lagunekin
jakiturietan;
gizondu egin bear
pisti maillatik alde
argitasunetan.

Maite neban erria
guraso biotzetan
euskeraz mintzatzen;
biaña zer sentitzen nun...
gurasoen mintzairan
etsaiak gu mintzen...!!!

III

Umearo ba doa
ta min latza asmetan dot
zirika enegan;
zerbait arrigarria...
gu zapalduta gagoz
otso erpapean.

Berez maite nun lurra,
seme zaintzailleen bidez
ezpaitan egoan;
atzerriko ezpata
ta etxeke aiztoa
ebiltzan jokoan.

Zenbat euskaldun jator
itza etsi ezinik,
euskaldun egia;
aalez ikusten nitun
erria zaindu nairik,
geure eskubidea.

Saldukeria baltzak
guzurrez joten nindun
biotz barrenian;
amaren maitasuna
zelan saldu leiteke
zabarkeripian...

Zure lur ederrenak
izkuntz berezia dau
Aberri maitia;
loituta ikusten nun
lotsaz beterik egon
euskaldun egia.

Ene euskalduntasuna
guzurra ikusten zendun
gizon paltsuetan;
egia artzen zendun
Aberriaren garraz
gizon zuzenetan.

IV

*Etxebarria, zer dok
ire mendi goietan,
zer daukak zelaian...?
euskaldun arimea
pozez, gaiñezka, al jabilk
ire baserrian...?*

*Ibai, zugatz, arriak,
alai, ortzirantz adi
egunez urretan;
lurraren izatetik
ederreen erioa
goizean intzetan.*

*Ardien arran otsa
mendian belardian
entzuten gozoz;
maitasuna jario
nire asabeen lurrak
larretik oparo.*

*Lurraren ederretik
biotz garbia dator
sendiko bizira;
lagun edertasuna
lurraren garrak dakar
euzkoen argira.*

*Mendi, zelai, abere,
gizonak lan ta jolas
izketan dabiltez;
pozean ta nekean
alkar indartzen dira
biotzez ta itzaz.*

*Izkuntz zoragarria
lur bera letz sakona;
sorpenik ederrena
egin zendun kabia;
izkuntz gizakorra.*

V

Gaztaroa eldu zan
ametsaren giarra,
bizi, odoletan;
Gazteiz ta Etxebarri
jakiturizko lurrak
argi izpieran.

Nere gogo, zer nai dot?
Aurrean dok Euzkadi,
ire lur guztia.
Euzko erri gorena,
arazo aundietan
ama ta semia.

Otsoz inguratuta
ikusten joat ama
katei ugerretan;
indarra dok lege
leoi zapaltzailleentzat
gogorkerietan.

Ostuka, lapur antzo,
jabiltzezak mutillak
euskeraz mintzatzen;
baiña zer eiten dogu
izkuntzarik onena
miñean erabiltzen...!

Gorrototan jausi nintzan.
Gero agertuko zan
gudaren erdian;
Gotzaiñak esan eustan,
salakuntz txarrak ditut
politik bidean.

Gogoaren indarra
egi bizitzan neukan
sorterri izkuntzan;
ezin saldu neikean
amaren odol itza
etsaien bizertzan.

VI

*Euskeraz jaiο nintzan,
bazter zoragarrian,
euskaldun bizi naz;
Zure itz ta lekuko
Euzkadin izan nai dot
amaren biziaz.*

*Arrituta naukate
arrizko gurasoak
errien artean;
arbel, aizkora, atxur,
lagun zituelarik
izerdiz lanean.*

*Arrizko aro ortan
zer izango ederren
Euzkadi zarrean...?
Goi ortzeko izarrak
itz biurtu al ziran
izkuntz ederrean...?*

*Denporarik zarrenaren
Ziñaldaritzarako
autatuak gara;
giza-seme zar areen
odola eta itza
doguz gora gora.!*

*Mendi onen artean
adimen garbi arek
biotza urrezko;
itzari ezarrita,
zirena itzi euskuen
odol ta arrizko.*

*Ederrez urtzen nago
arbasoei begira
ene lur maitean;
bizitza ta izkuntza
bitxirik garbienak
ditut biotzean.*

VII

Izkuntza garbal onen
jakituria nik dot
begi ninietan;
zure bizi guztian
sortzetik gara illezkor
euskal mendietan.

Zer daukazu arkaitza,
eguzkira begira
arri giarretan...?
Zer dau euzko semeak
urrezko biotzetan
euskeraz izketan...

Itzalez arrituta
euskeraren ederrez
ezin naz aspertu;
zure bizia gaitik
landu nai neuke itza
eta zu maitatu.

Egaz doa aizea
euzko jakituritan
euskeraz mintzatzen;
bizia dariola
zelai ta mendi zear
egiak zabaltzen.

Euskaldun arbasoak
konturatu al ziñen
arrizko aroan...
millak urteak zear
biziko ziñiela
zuen itz arloan...?

Egiazko izkuntza,
gizonaren argia
ete zan euskera...?
Jakintsuak lurrean,
gaur, ikasten jabiltsuz
zure izakera.

VIII

Lorarik ederrena
arrosa gorria da
baratza erdian,
usain, margo ta eder,
gozo, zabaltzen ditu
goizero, aidian.

Gizon zarreen aroan,
gogoz, laztanduko dot
enderri maitia;
zure odola daukat
euskal arriz egiña,
arbaso bizia.

Biotzeko arrosa,
odolez doan garra,
euskera joria;
izkuntza zarrenetan
bakar agertu zara
egi letz argia.

Zu lantzen bizi nai dot
izkuntza arrigarri,
jakintsuen duiña;
odola emon nai dot
aragi urunduz
ta suz erre miña.

Zu zara Euskadiko
Aberriaren itza
arbasoen garra;
millaak urteak zear
enda zar onen giltza,
euskaldun giarra.

JESU CADANOVA JAUNARI

I

Egun on baten eskatu eustan
bertso barriak jartea
Madrilgo seme dan Casanovak
entzun nairik euskerea;
bene-benetan apaiz batentzat
eder zan eskabidea
ordu onetan izan bekizu
poza guri entzutea.

II

Oraindik gazte ta gogo aundiz
bizi nai ziñan Areetan
Bizkaiak daben toki panposa
ezin jarri ezpaitan;
uste gabeko agurtze orrek
arritu gaitu benetan
gure gogoak opatzen dautzu
bizi ohea goietan.

III

Egi egitan autortzen dogu
lur onen edertasuna
erraietan lez gaiñean ere
agertzen dau maitasuna;
lurraren baltza eder dalarik
zer da zeruaren goia...
kristau fedeaz lortu dagigun
betiko alkartasuna.

IV

Mesedeetako eleiz orretan
gizon on batek itzi legiken
utsune samingarria...
Agur Areeta, agur itxas ertz
apaiz ametsen kabia
ez dago lurrik naikoa danik
poztuteko arimia.

V

Gizon gogo a armin bizi da
beti itxaropenetan
ona billatzen ezin asetu
lurreko ondasunian;
Egille bera eskatzen dausku
gogoak barne bizian
bizi gogo a asetuteko
Beraren ontasunian.

SAGARNA'TAR JOSEBA

Jainkoa maite zendun
abadetza bezela
apaiz otseinlari;
zure indar guztiak
buru, biotza ta gogo
eskeinduz lurrari.

Iñoiz ez zendun saldu
ez Jainkozko argia
ta ez Aberria,
zure biotz erdian
aldara bat zan eder
opariz jarria.

Euzkadiko jendea
zan zure ardurea
apaizgo bidean,
aingeruzko zirudin
zure jokabideak
gizonen aurrean.

Guda eldu zan miñez,
burdiña ta odola
ekazen nastean.
Zenbat errubageko
mundurako il ziran
anaien artean.

Aundizalekeriak
ez eban maite erria
ta zu ain zintzoa!!!
Bildotz otzana legez
salatu zinduezan,
errugabekoa.

Apaiz atxilotua
arri artean zear
zaroez mendira;
begiak estalita
irrika ta burlez
zoaz mai epaira.

Laster zendun azkena
kalbario mendian
burdiñaz ausita;
fedea zendun lagun,
egia indargarri,
itxaroten Aita.

Zer ikusi zendun
ordu larri estuan...
Igarle al zīñan...?
Zuk esan zendun itzez
gizon epailaria
burdin baltzez il zan.

Otoi bat zure alde,
ereduzko gizona
lurraren gaiñean.
Gaur, zorionez zagoz,
zuk otoi gure alde
Aitaren aurrean.

ERRUDUN

Gizadia, zer dozu...?
 Estutasun larrian
 zabiltzaz negarrez...
 Nork odolustu zaitu
 ankerkerizko eskuz
 mindurik samiñez...?

Zergaitik da naiago
 diruzalekeria
 maitasuna baiño...?
 Olan, izango ete
 gizonen txarkeria
 eriotzaraiño.?

Zerk galdu eragin dau
 anaien errukia
 biotz koldarrean...?
 Norberekeri baltza,
 zu al zara errudun
 negarren sorreran...?

ARGIA

Argia, esaidazu...
 zer da izate ori
 azurrik bagea...?
 Bigun zara sormenez,
 baiña bizi indarrez
 zagoz suz betea.

Argia, esaidazu,
 non, dago Egillea
 sua sortzen dauna...?
 Izarrez arritu dau
 goi urdiña gabea;
 zorakortasuna.

Argia, esaidazu...
 Non dago maitasuna...
 izar gorrietan...?
 Jainkoa, or, al dago
 zeru goia edertzen
 suzko dizdizetan...?

GERNIKA

Gorbei mendian nengon,
Euzkadi neukan aurrez
gudaren garretan;
Gernika aipagarria
bake gozoan egon
astelen lanetan.

Jendea arrituta,
zoraututa lez doa
suari igeska;
baiña bidean zear
egazkin tiropean
negarrez oiuka.

Etsaiaren gogoa,
zer darabilk iregan
onadamendietan...
burua galdu al dok
ala biotza erre
il amorruetan...?

Munduan ordu arte,
txarkeriz, etzan egin
olako ilterik;
odolaren beroa
eden biurtu al jak
Gernika austu nairik...?

Ezagutu gabeko
eriotza asi dok
Gernika gaiñian;
burdin, olio, sua
gorrotoz gorrituta
jausi da errian.

Erri dana sutu da.
Etxeak jausten doaz
burdiña azpian.
Gernikaren azkena
sortu nai ete dabe
su-garren artian...?

Ormak zatika doaz.
Au garraren samiña
eriotz artian;
ainbeste lagun dagoz
sua darioela
intziri bizian.

Frankoren egazkiñak
ez eben arimarik
suaga garretan;
kiskaldu ta austu da,
lotsaz dago mundua
amaien miñetan.

Arripetik urten nai,
baiña ezin ibili
azurrak ausita;
ezin itzi bizia
ta suz inguraturik
jendea erreta.

Bigarren sua dator
egitan, gaizkillea
errea ukatzen;
gaiztakeri alena...!
obena ezarri nai
euzkoei iraintzen.

Umearen dei miña
amaren besoetan
odol biurtuta;
amak ez daki zer ein
arri ta su artean
samiñak erreta.

GERNIKA

Zer asmo-tzar darabilk
gizon onenen aurka
il-zorabiotan...
garunak uselduaz
zentsuna galdu al jak
zorabioetan...?

Zer agintzen biotzak...?
kristau izen ederraz
gizonak ilteko...?
Baiña zillegi al jak
pentsamentu baltz ori
erria austeko...?

Zerk itsutu au Patxi...?
Irea ez dok lur au
euzkoena baiño,
jatorrizko legean
semeak landu joek
betitik gaurdaiño.

Pekaturik baltzenaz
loitzen ausartu al az
burua Gernikan...?
Ai...! negarren samiña
iregan elduko jak
gabaz loturikan.

Goia negarrez jagok,
lurra miñez dardaraz,
gibela zartatuta;
sarri, oiu, alarau,
pistiak orroaka
azurrak ausita.

Gernikaren azkena...
Frankotarrak barreka
erria auskeran;
suaz erre, apurtu...
amak uluka negar
umeak ilkeran.

*Ai ene oldozpena...!
Arriak kiskalita
suak erre ditu...
Nun zagoz euskalduna...
etsaiak gorrotoaz
auts biur al sailu...?*

*Ainbesteko obena
zelan sortu eiteken
gizon biotzean...!
Egiz, gaiztetsiko dot
gorrotoaren sua
ilketa baltzean.*

*Illintien dardaraz
besarkatuten zaitut,
Gernika maitea;
suz, oroimen garretan
kiskali jat biotza
ene oiñazea...!*

GERNIKA

Euzko Aberriaren
irudi egin zaitu
erritar jendeak;
zuregan gelditu zan
abendaren arnasa
edol ta semeak.

Zuzen ta bake zale
bakar zara munduan;
berezko bizia;
ez dozu ondamuraik
zure lurra aldurik,
enda berezia.

Gernika ta aritza
eliza legez dira
euzkotar bizian;
legerik ederrenak
erritik artzen ziran
aritz zar azpian.

Franko ta adiskideak
noraiño il nai eben
euskaldun bizia...?
gudarik ankerrena
izenik santuenaz
ausi nai erria...!

Egun gorria izan zan...
Biotzaren edena
burdfiña biurtuz;
gizon gaiztakeriak
gorroto baltzenagaz
suz erria austuz.

Negar ta odol arek
bizira deika dagoz
biotz barrenian;
neke samin aren gain
Euzkadi sortuko da
zuzentasunian.

Ambotoko arkaitzak
negarrez egon ziran
suaren aurrian;
baiña gaur, ernai dagoz
euzkotar seme oro
zure min bizian.



BEDEINKAPEN ORDUA

Aita Santiren oriomenian
alkartu ziran gizonak
euskal izkuntza goratzen dabe
adiraziz lan ederrak.



AITA SANTIREN OROITARRIA

Iru gizon ta maisu argia
dagoz euskaldun lurrian
oroimen on bat ospatutzear
euskeraren omenian.



ALKATE JAUNA

Andoain dar gizon prestua
gaur Bizkaiaz alkartu da
gure izkuntzari bostekoagaz
opalduz arnas barria.



RIKARDO ARREGI

Rikardo gazte zure inguru
alkartu dozu jendia
Euskalerriai emon gurarik
euskal jakintza bidia.

ADOREZ

Gizarte errukarri,
otsoak ei dabiltzaz
zu iruntzi nairik;
ardiz jantzita dagoz
irripar likitxetan
ortzak zorrozturik.

Leoiak letz orroa,
gorrotozko griñetan
zuriz jantzi nairik;
artalde gizajoa
nora ezean dabil
jopu biurturik.

Maite dodan erria
gal-zorian zakusdaz
eriotz miñetan;
eguna gau ein al da
ala zentzuna galdu
eriotz bidetan....?

Zelan zuzendu leike
zapaltzez ta odolez
giza bizitzea...
ukabil ta burdiña
iltzaillean eskuetan
il jake fedea...

Zelan zuzendu leike
zapaltzez ta odolez
giza bizitzea...!!
ukabil ta burdiña
iltzaillean eskuetan
il jake fedea...!!

Beti, erria aitatzen
t'ereusugea legez
ederrez beterik;
esna-adi euzkotarra,
egiaren ingdarrez
lur au askaturik.

Euzko seme zintzoak,
gudan zauritu ta illak
daukadaz gogoan;
odola deika dago,
samintasun garratzez,
azur muin osoan.

Abertzale garbia,
zu zara gaizkatzaille
euskaldun lurretan;
Aberria, zur, dabil,
gizonak adoretzen
zuzentasunetan.



IRUJO

Euskal gizona argiz jantzia
Euskadiren onerako
bizi eder bat eskeini zendun
aberria goraltzeko.

IRUJO

*Adiskide maitekor,
idazki idigi bat lez
artu nire itza;
barnetik sentitzen dot
zeure izate oro
baita re bizitza.*

*Ainbeste lan bizikor
ta argi zabaldu zeuntsen,
ots... Aberriari;
dardaraz jarten zendun
erriaren biotza
adi Naparrari.*

*Itza garbi ta zuzena,
beti, eriotso zeunkan
mintzaren gainean;
jakintz giarrezkoa
zer zan zure itzean;
argia miñean.*

*Lanik ez zendun uka.
Erria maite zendun
lurraren sustraitik;
nekeak onak ziran,
amari eskeintzeko
azurreen muñetik.*

*Egizaletasunez
gizontasuna zeunkan
bizitza garbian,
oñeztarri argia
zurekin bat egin zan
egite guztian.*

*Ontasun guzti ori
arrigarri egin zan
gizonen aurrean;
gaur ostera zuengan,
gozoro, bakea dago
zorion bidean.*

Zure itza eder zan.
Zure bizia on da
euskaldun lurrean;
zure arnasa nai da
arkaitz arri bezela
euskal alorrean.

Euskaldun on bezela
ez zendun billatu nai
aintzaren omena;
erria otseintzea
bizia urtu arte
zan zure naimena.

Ainbeste on aginda,
Aberrira begira
bizitza guztia;
geroz, gogoa pozik,
egiaren bidetan
eginik bidia.

IRUJO

Negarrez dot biotza,
odol gorria dauka
min eriotan;
maitasuna sentitzen
anai onak bezela
zure agurretan.

Zure jakituriak
gaztea nintzalarik
dardaratu nindun;
adimen ta biotzaz
bizi indarrez beterik,
zer esaten zendun...?

Buruz, egizko ziñan
biotzez maitasuna,
oro euskalduna;
izatez arturiko
lorarik bikaiñena
zan argitasuna.

Eguzkiak, goizean,
bizi argi beroa
dario lurrari;
zuk gogorik onenaz
askatasuna emon
bai Aberriari.

Naparroa, Euzkadin,
landugarria jatsun
neke latz artean;
jatorriz, da gurea
Aberri lur osoa
askatasunean.

Gizonaren gogoa,
ontasun garbietan,
miretsi nai nauke;
jeldar gizon jatorrak
egiz, arritu nabe
iñoiz aspertzeke.

Zure leialtasuna
Jainkoaren aurrean
gizonei on egiten;
zuzia itzi dozu
izarreen irudia
lurra argituten.

Oroimen indartsua
on indarrez egiña,
sartu da lurrean;
maitasunaren sua
biztuta itzi dozu
euzko biotzean.

Jainkoa maite zendun...
zorioneko gizon,
gaur, Aren aurrean;
lurra eder dalarik,
bakea zer ete da
Aitaren etxean...?

MUNGIA

Ene odol, gar oro
zuga ixuri nai dot
euzkotar Mungia;
zure itza sentitzen,
erdibitu nai neuke
bizitza guztia.

Egun larriak ziran,
ainbeste seme zintzo
nenkusan samiñetan;
gizontasuna eben
biziaren ardatza
egun garratzetan.

Erria maite eben
beren egi guztiaz
osotasunean;
bizia emon eutsen
lur santua eroien
biotz barrenean.

Gizon zuzenak ziran
euzko aritz bezela
odol ta giarra;
Aberriaren suaz
garretan eroiela
sinismen indarra.


Aritz zarreen semeak...
egiaren dirdirak
zaree Mungiararak;
zuen sustrai sendoak
lur sakonean dagoz
gogor ta ederrak.

Arbasoen gogoa
ta ur gorrien garra
dozue zaiñetan;
errugeko odola
garbi ta maitekorra
gizon zentsunetan.

Ongi-naia gura dot
maitasunez lantzeko
bizitza barria;
egiaren argia
zuririk ederrena
argitzen bidia.

Ez zara zapaltzaille.
Ez ezaindu biotza
euzkotar garbia;
zuzenaren biotza
bakeaz biziko da
atseden betia.

Jaiki, ernai, Mungia,
zar, sendo ta zindoa
izanen bizia;
so atxur ta lanari
anaitasun bidian...
or dago zoria!!!



GORBEA

Gorbea mendin udagoienez
gizon bi dagoz kantari
maitasun itzak opalduagaz
euzkoen izadiari.

ONAINDIA'TAR ALBERTO

Argia nai neuke
gizona ikusteko
zu zaran bezela;
ez dot nai bardintzerik
inungo gizonekin
zerana zarela.

Malaxko arkaitzpean
arria eta ura
dizdizetan dagoz;
gizonen egarria
egiaren uragaz
ase nairik zagoz.

Argitarantz adi
lurrean sustraiturik
zugatz ederrena;
euskal aritz zara zu,
giartsu eta lerden
tantai oberena.

Egille Almentsua
errukitsua izan zan
beren itz argiagaz;
miñean jarri eutzun
zurtasunaren doia
erreztasunagaz.


Euskaldun baratzean
millaka lili dagoz
arrosari adi;
Markiñako zelaian
lorarik bikaiñenak
gozina dirudi.

Zenbat biotz negarti
ainbeste gizonetan
zendukezan adi;
zuk izan bear zendun
zuzentasun abotsa,
euskaldun leiñargi.

*Kristo ikusi nai dot
zuga ta pobrietan negarrak txukatzen;
esker-miñetan dozuz
zure itz entzuleak
Olaso goratzen.*

*Paris'ko urretxindor...
Milli gizonen izar...
Zapalduen poza...
Egin zendun on dana
koro bat bezela da
egiaren otsa.*

*Ona eta egia
gizonaren itzetan
bat biurtu dira;
au da pozaren garra...
bizia urraturik
gizonei begira.*



Alberto Onaindia, Abadea, izlaria, ekintzaillea



ARIZMENDIARRIETA

Zorioneko ikusten zaitut
Jose Mari aiskidea
gogo guztiaz otseindu dozu
euzko jende langillea.

Irriparreka dozu gogo
on egiñaren saria
Mondragoitarrak esango dabe
au zan gure ongillia.



IDI PROBAK

Baserriari dagokiona
emen agertzen da indarrez
euskal gizonak baketsu adi
barne zoriontasunez.

LAUAXETA

Ziñan guztia emon zenduan
beti erriaren aldez
lenen lenengo idatzi bidez
ta azkenian odolez.



LAUAXETA

*Lertzen neukan zure irudia
biotzaren odoletan,
Bizkaiko izkuntzaren argia
maitatuz olerkietan.*

*Arranoa mendi gaiñean lez
zu, euskera gallurretan,
izkuntza bizia jalki zendun
olerki mardulenetan.*

*Gorputza il eutsuen burdiñaz
orma zarraren aurrean,
non, ete dago zu il zinduzena
bizitz onen bestaldean...*

*Maitasun ori asmetan dautsut
gaur, nigana etortzean,
txikia, naz ta, zure laguntzaz
naukazu zure aurrean,
ni nazan oro eskeintzen daut-
sut
ogi onegaz batean,
zu-izan zakidaz Jaungoiko
bakar
emengo lanen artean.*



AITA PATXI

Arrietako mendi ertzian
ikusi zendun argia
lurretik gora jasoten daben
gogoen aztertzaillia.

Gero arretaz jokatu zendun
egi zabaltzen lurrian,
atzera bage aurrera beti
Jainkoaren izenian.

ASKATASUN

*Askatasuna nai dot
barreneko min garraz
gizonen lurrian;
burua adi dago
almen argietara
itxaropenean.*

*Nik ez zaitut zu sortu
enen bizi egarria,
gauza oberena;
gizonaren leia da
izateaz batean
bitxi ederrena.*

*Egaz doa txoria
askatasun kantari
aizea urratzen;
alai doa abeslari
gizonen pozgillea
aideak alaitzen.*

MENDI ETA MUÑO

*Mendi gain orlegiak
giza arrimen dira
goiz argi begian;
danak gora goraka
zein ete dan ederren
ortziren aurrian.*

*Euskaldunen Gorbea
Euskalerrira adi
daukagu maiteki;
ainbeste mendi lirain
gora goraka dagoz
agurka alkarri.*

*Mendi eta muñoak
zugatz eta landarak
bedar eta lorea,
aintzaldu Jaungoikoa
ederren Egillea
on danen Jaubea.*



Euskal baserri aintzagarria
gizon leiñargi kabia
zure erraietan sortu zan bipil
euskal izkuntza joria.



Antxiñateko andre ta gizon
euskeraren langilleak
lengo oroimenez aurkitzen dira
batzar ontara deituak.



Lege eder bat ba-da munduan
Egille berak jarria
gizon t'emazte biziko zare
goralduz beti maitia.

AGIRRE'TAR JOSEBA ANDONI

*Agirre jauna, irudi bikain,
zara euskotar artean
erri nausiak artu zinduzan
danen buru sorterrian
zure buruak biotz onagaz
jakituriz itz egian,
Euskalerriko sustrai sendoak
argi zeunkazan barnian
euskal endaren bitxi guriak
norturik zure izatian.*

*Zure bizia ederra izan zan
euskotarrak onaturik,
ziñan guztia opaldu zeuntsan
erriari biotzetik,
gure izate eta legeak
beti egoki, zaindurik,
sinismenez tga gizontasunez
egi alde jokaturik,
Euskalerriak onartzen zaitu
biotzez zabal zabalik.*



*Garai gogorrez izandu ziñan
euzkotarren gidaria
beti gerturik opaldu zeuntsan
aberriari bizia.*



LIZARDI

Izatez artu zenduzan doiak
ederrak ziran benetan
eta zuk egiz bete zenduan
erri otseintza lur ontan.

LIZARDI

*Mendietara adi
oro eder zenkusan
orlei bizietan;
bedar, ota ta zugatz
danen arte lizarra
maitekoi benetan.*

*Biziak emon eutzun
gallur zaletasuna
biotz barrenean;
eguzkia ba-dator
mendi oro urretzen
zugatzen pozetan.*

*Adimena argitu da
goiz izarraren izpiz
edermen pozagaz;
eta zu lizardira
abeslari jun ziñan
urretxindor itzaz.*

*Buru argiz, biotzez,
eta irudimenez
jantzi zinduezan;
euzko gizon egiñik
olerki gorenekin
zugatzaren puntan.*

*Zuk maite zendun itza
euskaldun izkuntza zan
ederrez jantzirik;
zure almen guztiak
olertizko guriñaz
opalduz gogotik.*

*Esker-miñetan dozuz
lur, mendi ta euskera
urrezko izkeraz;
ederretan eder da
lur oni emon zeuntsan
bizia itzagaz.*



AITA SANTI ONAINDIA

EUSKERAINZAKOA

Euzko baserri zoragarriak
mendi bitarte artan
Bizkai aldeko Amorotoan
urretxindorrak aidean;
udabarri ta urrezko udan
mutil koskorra lenean
aldi artako oitura legez
itxaurren beien aurrean.


Zeru altutik begira egon
gizadiaren Artzaiña,
Euskalerriko lurrak agertuz
bedeinkapenez batera;
mutil zintzoak ta langilleak
batu nai zitun etxera,
fede-zaleak argi egien
euskaldunen baratzara.

Zuri begira zuzendu eutzun
maitasunez dei eginik,
aingeru antzo artu zinduzan
euzko baserri aldetik;
doai ederrez apaindurikan
jarraitu zeuntsan gogotik,
mutil gaztea, aurrera, doa
Jaungoikoaren eskutik.

Sinismena ta langille sena
garbi zeunkazan barnean,
baita erria nungoa ziñen
euzko baserri aldetik;
doai ederrez apaindurikan
jarraitu zeuntsan gogotik,
mutil gaztea, aurrera, doa
Jaungoikoaren eskutik.

Sinismena ta langille sena
garbi zeunkazan barnean,
baita erria nungoa ziñen
euskaldunen lurraldean;
Jaungoikoa ta euzko bizitza
amets zenduzan lurrean,
zerua eta euzko gizadi
batuz alkartasunean.

Baratz eder bat sortu zenduan
lora ederrez landurik,
egite sendoz ta ezilkorrez
kultur lana jorraturik;
milla lan eder egiazkoak
erriari opaldurik,
esker onetan agertu dozu
biotza zabal zabalik.



IRU GIZON LEIÑARGI

Iru euskaldun iru eguzki
alkartu ziñen batean
euzko gizonen irutasuna
sortuz izkuntz ederrean.



LEKUONA MANUEL AGURGARRIA

Lur oni eskein zeuntsan
oro. apaltasunez
zeu ziñan guztia,
euskaldun gizadia
euskaldun gizadia
nai zendun zoriondu
eskarrez betia.

BARANDIARAN'DAR JOSE MIGEL

Barandiarango gain
argira adi zagoz
gozotasun naian;
eguzkia or dator
urrezko dizdizeraz
mendi magalean.

Argiak berez dakar
dizdizka maitasuna
euskal basetxera;
jolasetan sar jatzun
argiaren dizdira
garun muiñetara.

Zerutik deika zeunkan
argien argi bera
zure baratzara;
ta zuk gorantz begira
artu zendun argizko
indargai ederra.

Argia ta deia
eldu ziran zugana
asmo aundietan;
dana egoan zabal
gogoa ta biotza
adore gartsutan.

Jakituria batzen
lenengo alegiñak
ezin asperturik;
geiago t'ederrago
argitzen zan burua
jakintzaz beterik.

Euskalerrria aurrez aur
antzizka ditxarotzun
seme leiñargia;
mendi eta ur zulo
ta gaztedi eskola
zendukezan begira.

Baso ta mendietan
sarri, alkartu ziñen
jakituri billa;
euria ta naiz eguzkiz
iñoiz, atzera barik
eiñak egiñala.

Lurrak astindu eta
arriak banaturik
koba zuloetan,
erraldoi lez gizonak
giza aztarnak batzen
ebiltzan lanetan.

*Billatu ta ikasi
gero ondoren eskolan
mutil gaztetara;
kobatan batutako
arbasoen jakintza
gazteei agertzera.*

*Bizitza aberatsa
izan zendun munduan
jakintza lanetan;
Euskalerriko seme
argi eredu zara
giza lanbidetan.*

*Gaur, esker-miñez dozu
euzkotar Aberria
biotzez zabalik;
menditik agertu zan
enda baten bizia
egi biurturik.*



· BARANDIAN'DAR JOSE MIGEL

*Mundu zear zabaldu zendun
jakituriaren itza
zugaz batera dardaratu zan
euskaldunaren jakintza.*

IZPIAK

*Egizale dan edozein gizon
jarri giñaike lekuko,
Birle aldea zer zan lenago
fabrikak eldu orduko;
fluorosisdun lantegi orrek
indar gaiztorik ba-dauko,
guzur ta naste negargarriak
laster ditue asmauko.*

*Lengo arnari osasuntsuak
amaitu ziran soloan,
zio barririk etzan besterik
tximinik baiño laiñoan;
solo guztiak erreta dagoz
eden txarrez oso-osoa,
kaltegilleak ez nai ikusi
egin dan txarra auzoan.*

*Iñun diran burruka-tzarrak
dabiltzaz gizon artean,
fabrika dala errudun gaizto
lurraren ondamenean;
jauntxoak barriz, beti, bezela
ezagutu ez naiean,
guzur ta ipuin, gogor, dabiltzaz
ao miñaren barnean.*

*Baserritarrak ba-dira batzuk
ondamendiratzailleak
naita ikusi etxean eurak
lur ta ganadu kalteak;
fluorosiaz naiago dabe
aurrera egin bideak,
lantegi artan irabazita
aloger merke merkeak.*

*Ezin dot jakin nola daiteken
gizona ain parregarri,
beretzat nai dau bizia zabal
iñorentzat barriz larri,
guzurra dabil bitarte ortan
bere naiean edergarri,
gizontasuna zapaldu dau-ta
gero, makil bildurgarri.*

LUR

*Oi lur ametsen kabi
ludi guztia dago
zure ertzei adi;
ain al zara eder!
ain al zara emonkor!
gosekien ogi...!!*

*Arkaitz erpin zuriak
gora goraka dagoz
urdiñean sartzen,
arru sakon luzeak
iturri gardenekaz
bizia alaitzen*

*Lur, arru ta arkaitz
artu arnas zabala
eguzki izpitan;
aintzaldu Jaungoikoa
gallur ta zelaiak
goiz ta arras-beretan.*

LUGINA

*Aita luginaren semea naz.
Beti, lan ta lan ebillan.
Goizeak, iñoz, ez eban ordurik
egunsentia zanean;
arratsaldeak ez zun azkenik
illuna eldu artean,
lana, nekea ta izerdia
aitaren lagunak ziran.*

*Lanez eta izardiz bakarrik
ezin konpondu soloak,
euria bear, baita eguzki
lurrak gozatutekoak;
euri jabea nundik ete dan
galdezka lugin euzkoak,
soloak erre, gogoak jausi,
zoritxar asko olakoak.*

*Sarri askotan gauz balioa
ezer-eza azoketan,
ainbeste neke artu ondoren
iru txikin saltzekotan;
era onetan lan egin eben
gure asabak bizitzan,
beti, pobrezan eta zapalduta
nauskeri baltzen azpian.*

*Zenbat ezbear... Laguntzarik ez...
Lugiñen lana, olan, zen,
beti lorpean arrastaria,
iñor ez arduratzen;
bere kontura aurreratzea
lortzen ba'eban noizbaten,
berialaxe zerga geiago
gogoz jarriko eutsoen.*

EUSKAL GURASOEI

Bildurrik bage ta poztasunez
oroitu nai dot bizitza,
Jainkoagandik artu genduan
eskar aundiko emaitza;
Aita onenak emon euskuan
izatearen lorratza,
maitasun utsa agertzen dausku
sorturik gure jaiotza.

Urterik urte aurreratu zan
gure egunen kateia,
neke ta lanak izanagaitik
urrezkoa da aldia;
ain da ederra lur gain onetan
gizonaren arnasia,
bitxiak baiño maiteago dot
osasunaren grazia.

Lora ederrak dagoz baratzan
beti, usain eriotan,
lur onek dauka beren indarra
mamin artean ernetan;
sarri askotan, ikusi gendun
bedarra sortzen landetan,
gure bizia arnaska dabil
semien semeen pozetan.

Nire senarra, agurtzen zaitut
adurrez bete beterik,
zugaz batera nire urteak
zoriondu direlarik;
zorionetan ta gaistoetan,
beti, alkar lagundurik,
maitasunaren sua daukazu
iñoiz, amatau bagarik.

;;Oi Katalintxo nire maitea,
bildur naz ezer esaten,
euzko gizonak lotzorrak dira
barru miñak agertuten;
baiña egia ezin ukatu,
zu-gaitik naz ni urtuten,
nire biotza, bizitz ardatza,
zu barik ez da poztuten.

IGANDEA

*Igandea maite dot.
Egun urdiña dator
itxaropentsua.
Zein eder dan ontziña
goi askatasunean
amodiotsua.*

*Jaungoikoak sortu dau
lorerik ederrena
igande goizian;
gizon illa biztu zan
zeruetan sarturik
izarren artean.*

*Otoi egin nai dot
belaunbiko lurrean
zerura bagira;
Jainkoak orbiztu dau
sinisdunen biotza
goizeko argira.*

ESKEINI

*Kantu eder bat egin nai neuke
gaurko egunez mendian,
Lorentzo gure anai zintzoa
danaren oroimenean;
begira lenen, anai onari
parrillaz esku artian
Jaungoikoari eskeini eutson
bizia prasa gaiñian.*

*Laukariz alde nere nere,
egiz nai dot itz eitea,
Jaungoikoa ta bere erria
ziran nere ardurea;
maitasun orrek ekarri eustan
burdiñezko parrillea
ta nik eskeini neure gorputza
suz izan nedin errea.*

*Noren aldezko eskeini zendun
Lorentzo, zure bizia,
ta norengandik artu zenduan
ortarako adoria;
ona, gaur, gure jakin nai miña
gertatu daigun bidia,
mundu onetan gauz on bat einda
zabal dagigun argia.*

*Ori eginaz, penarik ez dot
Jaingo ta mundu aurrean
nere Aitari eskini neutson
neu nintzan era berean;
ta zuen alde nire odola
deika Aitaren aurrean,
esnatu danok, jokatu gogor,
zori au lortu artean.*

JOSU

*Aurtxo bat jaio jaku
Igarleak esana
gaberdi otzean;
aingeruak dabiltzaz
mendian abeslari
pozaren pozean.*

*Ardi eta artzaiñak
soiñua entzukeran
arriturik dagoz;
mirarizko barria
aingeruen agotik
artzen dabe gogoz.*

*Jainkoaren Semea,
egiz arrigarria
jaio da Belenen;
ardiak itzi larran,
zoaze estalpera
aurtxoa gurtuten.*

EDURRA

*Edurra zuri zuri...
Mendiaren ederra
dago argi isletan;
aizea, zital, dator
biziaren etsaia
arru egaletan.*

*Egaz datoz txoriak
oiu samingarrietan
biziaren billa;
urak asarretu dauz
ikusten ez dan putsak
otza dariola.*

*Ortziko laiño baltzak
negar erioz dagoz...
urezko mamia;
millinoiak mamorro
il dira zugatzetan...
erio larria.*

ONTASUNA

*Izkuntzaren argia
bai dala eder...
mendian eguzkia
goizez, agertzen dan lez
ezkier.*

*Gizon itz jarioa
entzungarria,
jakituriz betia
on eriotan dabil
maitia.*

*Euskeraren ederra
mendian zagoz
lore bikaiñena lez
aize garbi artean
urrezkoz.*

EUSKALDUN GURASOEI

Berezko garrez jatort burura
euskaldun edertasuna,
ez dakit zen dan, baiña maite dot
zuen egokitasuna;
Euskalerriko guraso maite,
aupa zuen nortasuna,
arpegietan dizdizka dabil
andre ta gizontasuna.

Txikitan asi ta gogoratuz
bizitzako lan guztiak,
mendietan lez soloetan be
ziñien atxurlariak;
aita ta ama, beti, aurrenen
zuen guraso argiak,
lanan artean, ondo, urturik
jokatu eben maitiak.

Zenbat izerdi joan ete da
neke luzien artean,
goizian goizik, gabean gabaz,
lana egin eziñean;
beti urratzen, umeak azten,
orain barriz paseoan,
gure amamak, ondo, ekian
zelan izango giñean.

Erri ederrak artu ginduzen
beren altzo zabalean,
Zuluetako Josepantonik
eukan lorea etxean;
ule gorria, begi urdiña,
onena mendi gaiñean,
amaika mutil ibili ziran
deika bere ondorean.

Erromeriak izaten ziran
auzoetan pozgarriak,
lenen, ori bai, Meza Santua
alkartuz adiskidiak;
gero, zelaian tanbolin dantza
eta irrintzi alaiak,
poza ebillan aidean zear,
barreka biotz guztiak.



LEIZAOLA

Zentzuna eta jakituria
zeunkazan gizon jatorra
Euskalerrria gidatu zendun
erritar seme gisara.



Euskerazaintza lantegi eder
izkuntza bikain zalia
ele ederrez indartu nai dau
arbasoen jatorria.



Mungiko seme ertilariak
pozez dabiltzaz soiñutan
euskal txistuaz poztu nairikan
erria jai egunetan.

Solozabal'dar Paulin Abade olerkaria

Eskuetan daukazu, irakurle, Paulin'en amairugarren olerki-liburua.

Paulin Etxebarri'n jaio zan 1912n. urteko orrillaren 4n. egunean. Jose Maria Arizmendiarrjeta'ren etxetik km. bira dagon etxean. Etxebarri bere errian asi ebazan ikasketak eta Larruskain'en jarraitu. Amabi urtekoa zala Durango'ko josulagunen ikastetxera joan zan, gero seminaria joateko ustean. Urte bi egin ebazan emen eta gero beste urte bi Artea edo Gaztelu-Elexabeiti'n. Beste zortzi urte Gasteiz'ko seminarioan.

Ikasketak amaitu-aurrean gudara joan bear izan eban eta gudarien kapellau-antzera egon zan ainbat lekutan, Gorbeia'n be bai. Gogoan dauko zelako maitasunaz errezaten eben gure gudariak agurtza deuna.

Gero Lizarraga'n egon zan kapellau-antzera erdeldunakaz eta Gasteiz'era joan zan Lauzurika gotzaiñagaz berba egitera eta abadetza eskatzera. Baldintza batzukaz, bat Franco'ren alde jokatzea, beietza emon eutson eta gogo-jardunak egin eta Bergara'n egin zan abade.

Araba'ko Basabe'n egin ebazan urte bi abade eta arrezkero 65 urte daroaz Mungia'n, artzain-lanetan eta euskerearen alde lan egiten. Gaur be orretan diardu. 20 urtean Laukariz'ko Abadea izan zan, Mungia'tik.

Zorionak eta eskerrik asko, Paulin, Zure liburu onegaitik!